

Delorean taldea

Bergarako gaztetxea bete zuten zapatuan
KULTURA, 20-21



Mondrak 1-0 irabazi zion UDARI, derbian

Aloña taldeak 3-1 galdu zuen Anaitasunaren kontra
KIROLA, 12-13

Kepa Junkera

'Hiri' lana aurkeztu zuen Arrasaten
KULTURA, 23



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko iraiaren 18a • 3. urtea • 114. zenbakia • 0,90 euro

Errazti: "Ezin dugu onartu herri- eskubideen atzerapen gehiago"

*Alkartasun
Eguna egin zuten
atzo Arrasaten,
alderdia
indartzeko
deiarekin*

NAZIONALISMOA PIZTU
Ziarretak esan zuen hauteskunderi begira sentimendu nazionalista piztu behar dela

UNE HISTORIKOA
Herri-eskubideak eskatzeko 1978koa baino une garrantzitsuagoa bizi dugula dio Erraztik

ALDERDIAREN INDARRA
1986ko banaketa ezker alderdiaren ibilbidea goraiatu zuten ekitaldian

Independentzia eta sozialdemokrazia ardatz, alderdiak orain dela 20 urte sortu zenetik izandako koherentziaz mintzatu ziren Errazti eta Ziarreta, Uarkape pilotalekuan eginiko ekitaldian.

Hauteskunderi begira alderdia indartzeko dei egin zuten EAko buruzagiek, ika-miken gainerik. **2-3**



JOSETXO ARANTZABAL

Urteaga kalea eta Mugarriteko sarrera zabalik

Egubakoitz iluntzean zabaldu zuten ibilgailuendako Bergarako Urteaga kalea; Antzuolarako bide zaharra, hain justu. Ia hiru urtez egon da itxita, lur-jauziengatik, ibilgailuendako zein oinezkoendako, eta harrobiaren gaineko mendi magala eusteko lanak guztiz bukatu ez dituzten arren -azarora arte iraungo dute lanek-, dagoeneko zabalteko moduan zegoela aurreratu dute Aldundi-ko Errepide Departamentutik.

Bestalde, gaur zabalduko dute Aretxabaletatik Arrasatera sartzeko Mugarriteko sarrera. Uztailaren 6an itxi zuten, lur-jauziengatik hura ere. Gaurtik aurrera erabilgarri egongo da. **6 eta 8**

Arrasateko Udalak gaur sinatuko du Gelmako hitzarmen berria **5**

Mugikortasun Astea hasiko da gaur Arrasaten

*Bizikleta azoka eta era eraginkor eta ekonomikoan gidatzeko ikastaroa izango dira, besteak beste **8***

Mobilizazio eguna deitu du Askatasunak

*Auzitegi
Nazionalari stop
esateko bilkurak
deitu dituzte
barikurako **6***

SUPER AMARA
90 euro baino gehiago produktuetan DOHAINK
Opari Txekeak berriz ere

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

GEUREAN

- Bergarako Erreileno eta Tostoiak Kofradiak ohorezko lau kide berri ditu | 5
- Aramaioko oinarrizko gizarte zerbitzuak aztertuko dituzte asteen | 8



Juanjo
Fernandezekin
droga
menpekotasunaz
aritu gara | 6

ALKARTASUN EGUNA



JOSETXO ARANTZABAL

Uarkape pilotalekua alderdikidez gainezka egon zen atzoko ekitaldian.

EUSKO ALKARTASUNA | 20. URTEURRENA OSPATU ZUTEN ATZO ARRASATEN

Eskubideen aldarrikapenean gehiago ez atzeratzeko deia zabaldu zuten

Hauteskundeei begira indarrak batzeko eskaera egin zuten Ziarretak eta Erraztik Uarkape pilotalekuan egindako ekitaldian; independentzia izan zen aldarri nagusia

Jon Berezibar

"Inoiz baino gehiago, Eusko Alkartasunaren proiektua indartu eta independentzia eta sozial-demokraziarako" dei sutsuarekin ospatu zuten atzo Arrasaten Alkartasun Eguna. Mugarrria izan zen, gainera, atzokoa, alderdiak 20 urte bete ditu-eta irailean EAJtik banatu eta bere bideari ekin zioenetik. Gainera, sal-

tsa politikoa, maiatzeko hauteskundeetan jeltzaleekin koalizioan ez aurkezteko erabakiak hautsak harrotu ditu.

Edozelan ere, alderdien ikamiketean murgildu baino gehiago, bi hamarkadotan egindako lanaren ospakizuna izan zen atzoko ekitaldia. Begoña Errazti buru, alderdiko buruzagitza osoa eta Gobernuako alderdiko kide guztiak izan ziren Uarkape pilotale-

kuan. 12:20an hasi zen ekitaldia: frontoi osoa beteta eta jendea zutik, txalo artean hartu zituzten buruzagiak. Debagoieneko koordinatzaile Pello Urizarrek eta Jaurlearitzako Biodibertsitate zuzendari Elisa Sainz de Murietak gidatu zuten ekitaldia. Baina lehenengoa hitza hartzen Unai Ziarreta izan zen; idazkari nagusiak hasi bezain laster ekarri zuten gogora 20. urteurrena, eta esan zuten 1986an EAren desagerpena iragarri zutenak oso oker zebiltzala. Hala, "orain eta lehen alderdiak proiektu independentista eta sozialarekin aurrera" jarraitzen duela adierazi zuten Ziarretak, zalantza guztiak gaindituta daudela. Hala, argi utzi gura izan zuten "eraikuntza nazionalak eta sozialak batera"

joan behar dutela, batak bestea barik zer eginik ez duelako. Koherentzia izan dela horren ardatza adierazi zuten idazkari nagusiak,

"Orain eta lehen, alderdiak proiektu independentista eta soziala du"

"Konponbiderako mahaia PSOE eta Batasunaren interesek blokeatu dute"

"Eusko Alkartasunak alderdien interesak gainditzen dituelako herriaren alde".

Une politikoari aipu eginez egin zuten aurrera Ziarretak bere interbentzioan. Hauteskundeei begira, alderdia indartzeko garaia dela agertu zuten eta konponbiderako mahaian beharra azpimarratu, "PSOE eta Batasunaren interesengatik blokeatuta dagoena". Era berean, gaineratu zuten hauteskundeetarako gizartearen sentimendu nazionalista berpiztu behar dela. Amaitu zuten esaten EAK bizirik eta jardunean jarraitzen duela eta, desagertuko zela iragarri zutenei galdetu zien ea 20 urte barru ez ote den EA euskal estatu bateko alderdi hegemonikoa izango. Gero, Ziarretak jasotako txalo zaparradaren ondo-

ALKARTASUN EGUNA ARRASATEN

ren, Begoña Errazti lehendakariak hartu zuen hitza. Alderdiki-deengamako esker-on hitzaldia izan zen Erraztiren, "alderdiak 20 urtean bete egin dituelako bere konpromisoak". Europari begiratuta, euskal gizarte aldarrikapenetan bakarrik ez dagoela esan zuen. Izan ere, EAko alderdikideekin batera, Uarkapen zeuden Esquerra Republicana, Chunta Aragonesista, Andaluziako Alderdi Sozialista eta Britainiako nazionalisten ordezkariak. "Autodeterminazioa, independentzia eta sozialdemokrazia" izan ziren haien artean ere Erraztik eskatutakoak. Edozelan ere, mezu garbia helarazi nahi izan zien "espainolei": EAK beti jarraituko duela espainolen aurrean borrokan, "eta ez aurka". Baina argi laga nahi izan zuen "euskaldunen eskubideen eskaerak atzeratzen dabilzala" eta "prozesu guztien gaitetik euskaldunei gure eskubideak itzuli behar zaizkigula". Horrela, "une hau 1978koa baino garrantzitsuagoa da. Gure eskubideak eskatzen orain atzeratzen bagara, hainbeste espero dugun independentzia ere atzeratuko dugu". Jendea zutik eta "Independentzia!" oihuekin amaitu zuen Begoña Erraztik ekitaldia.

ALDERDIKIDEEN BAZKARIA

Ekitaldia egin eta gero, herri bazkaria egin zuten alderdikideek Musakolako kiroldegian. Eta 2.000 militante baino gehiago batu ziren, Euskal Herri oso-tik etorritakoak.

Oraingoa 1978koa baino une garrantzitsuagoa dela dio Erraztik

Euskaldunei, atzerapenik gabe, eskubideak itzultzeko eskaera egin zuten

CARLOS GARAIKOETXEA | EUSKO ALKARTASUNEN LEHENDAKARI OHIA

"EAJ gure posizioetarantz dator, hasieretan mespretxatu arren"

J. B.

Atzoko ekitaldi nagusia baino lehen, zapatuan izan zen Carlos Garaikoetxea Arrasateko Alkartetxean, Gazte Abertzaleekin jardunaldi berezia egiteko.

20. urteurrena ospatzen zabilzate alderdian. Koalizioan joatearen eztabaida ezin zen une historikoagoan piztu; garrantzia du momentu honek Eusko Alkartasunean?

Gutziz normala da alderdi bat bere aldetik aurkeztea, bere proiektuarekin. Egoera berezian eta gure estatutuek hala diotelako, koalizioan joatea aukera dezakegu, baina gauza berezi moduan. Batzuek koalizioa eta kooperazioa nahasten dituzte; kooperazioa beti da posible, nahiz eta koalizioan ez egon. Horren eredu da gaur egungo hirukoa.

Eztabaida tirabiratsua izan dela ematen du; alderdia kaltetuta irten da?

Jadanik gaia erabakita dago eta ez dagokit niri berriz arazoak aztertzea, baizik eta gure erakunde nazionalak erabakita onartzea. Saltsa horretan ez naiz sartuko, baina oso eztabaida demokratikoa izan da, begirune handiz egindakoa, eta, argudioak ondo aztertu eta gero, guztiz normala den erabakia da, Eusko Alkartasuna bere proiektuarekin argi eta garbi aurkeztea. Hauteskunde ostean, Euskal Herriak behar izanez gero kooperazioak eta koalizioak aurrera jarraituko du.

Erabaki horrek egonezina piztu du alderdian?

Politikagintzan garrantzitsuena ez da emaitza ona lortzea, baizik eta koherentzia izatea, proiektu garbia aurkeztuta, eta hori egin du EAK.



Carlos Garaikoetxea.

Uste duzu zenbait alderdi eta hedabidek alderdiaren irudia kaltetzeko erabili dutela ika-mika?

Zoritxarrez hori beti gertatzen da, manipulazio eta intoxikazio handia dago. Nire ahotan nik esan ez ditudan gauza asko ipini dituzte. Nik errespetu

handiarekin jarraitu dut prozesu guztia, baina, azken finean, erretiratua nago eta ez naiz eztabaidan sartu. Batzuek esan dute ni batzuen aldeko nintzela, eta horiek intoxikazioak dira. Esan dute baita ere EAJ gure presentzia txikitzekotan

"Politikagintzan garrantzitsuena ez dira emaitzak, koherentzia izatea lortzea baizik"

"Alderdia orain 20 urte hutsune bat betetzeko sortu genuen, eta lortu dugula uste dut"

zebilela, eta abar. Eta gure alderdia oztopatzeko asmo argiarekin egin dute guztia.

Alderdiak egun bizi dituen une biziak ikusita, ez dizu penarik ematen erretiratu izanak?

Mundu honetan ondo erretiratzen jakin beharra dago. 30 urte saltsa guztietan ibili eta gero, joateko unea zein den jakin beharra dago.

Une politikoa ere berezia da; zein da EAK prozesuan bete behar duen lekua?

Duela 20 urte gure proiektua aurkeztu genuen hutsune garbi bat betetzeko, egitasmo independentista argiarekin, baketsua eta sozialdemokrata. Uste dut alderdiak gero eta gehiago dabilzala hurbiltzen gura. EAJn ez zuten argi eta garbi autodeterminazioa aldarrikatzen eta batzuetan mespretxatu eta guzti egiten zuten; ea azak landatzeko nahi genuen esaten zuten. Horrela, poliki-poliki bide soberanista horretara dabilzala gerturatzen, eta ea horrela jarraitzen duten etorkizunean. Aralarrek, adibidez, indarkeria alde batera utzi eta bide demokratikoen alde egiten du, guk beti eskatu duguna: erradikal izan daitekeela autodeterminazio eskubidean, baina bide baketsuekin posible dela. Sozialdemokrazia da guk orduan bete genuen hutsa.

Zelan ikusten duzu Ibarretxe lehendakaria prozesu guztian?

Oso harreman ona izan dugu beti, baita maila pertsonalean ere. Noizean behin ikusten dugu elkar eta nork bere ikuspegiaren berri ematen dio besteari. Baina koalizioa programa konkretu batekin egin genuen eta Eusko Alkartasunak argi eta garbi eskatzen du bide soberanista. Bai koalizioan zein egindako lanari dagokionez, uste dut orain arte ondo ibili dela Ibarretxe.

• HALA BIZI IZAN ZUTEN EGUNA ALDERDIKIDEEK



ALEX, NORA ETA IBON | GAZTE ABERTZ.
Gazte Abertzaleek Arrasaten eta Bergaran egondako jardunalditan eman dute asteburua. Zailtasunak zailtasun, euskal gazteriarren heldutasunean sinesten dute, eta EAK duen espazio politikoa aldarrikatu.



PELLO ETA JABIER | ARRASATE
"Zapatu goizean hasi eta lan mordoa izan dugu guztia prestatzen. Dena azkenean oso ondo atera da eta ekitaldi polita izan da. Harre-ra oso ona izan du."



ELI SAINZ | GASTEIZ
"Gure proiektua indartu behar dugu, inoiz baino gogorrago lan egin. Gogor apustu egiten jarraituko du EAK etorkizunean."



JULIAN, ANA, ERMI, JULIAN ETA ANTONIO | URTUELLA
"Urtuelltatik etorri gara autobusean lagun taldea, ekitaldi politikora eta gero bazkarira". Ekitaldi politikoan Begoña Erraztiren hitzaldia gustatu zaie gehien: "Zoragarria da Begoña", dio Anak, "asko gustatu zaigu hark esandakoa. 20 urte bete eta alderdia gero eta indartuago ikusten dute ezkerreko beterrano horiek."

ZERBITZUAK | ZAPATUAN INAUGURATU ZUTEN BERGARAN AGORROSIN EKINTZA-GUNE BERRIA



Gallastegi alkateak eta Txabarri diputatu nagusiak bistaratu zuten plaka oroigarria.

Protesta ahotsen artean inauguratu zuten gune berria

Gaur, astelehena, zabalduko dute gune berria erabiltzaileendako goizeko zazpitan

Monika Belastegi

Zapatuan, San Martin egunean, inauguratu zuten Bergaran Agorrosin ekintza-gune berria. Izen hori eman diote ez delako kirol-gune bakarrik izango; aisialdia eta kultura ere batzen ditu.

12:30ean hasi zen inaugurazio ekitaldia. Han izan ziren Joxe Juan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia, Fernando Tapia Gizarte eta Institutio Harremanetarako diputatua, Iñaki Ugarteburu Aldundiko Kirol Zuzendaria, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta herriko beste hainbat udal ordezkari. Baita Antzuolako eta Eskoriatzako alkateak ere.

TXISTU ARTEKO BERBAK

Agintariok iritsi zirenerako, herritar multzoa batuta zegoen eraikinaren aurrean; hain justu ere, agintarien aurrean herriko hainbat proiektuekin duten desadostasuna azaltzeko. Zabalotegi Bizirik plataformak deitu zuen elkarretaratzea eta harekin hainbat herritarrek egin zuten bat, tartean Bergara Aurrera plataformak eta Zinea Orain taldeak. Han batutakoek txistuka hartu zituzten agintariok.

Eraikinaren sarreran egin zuten inaugurazio ekitaldia eta Gallastegi alkateak hartu zuten hitza lehendabizi: "Agorrosin ekintza-gune berria atzerapenarekin etorri da", esan zuen, "baina gauzak ondo egiteko denbora behar izaten da", gehitu zuen. Horrekin batera, gogora ekarri zuen gune-

aren lehenengo fasea dela bukatu dena. Bainuetxea datorren udaberrian zabalduko dute eta datorren udarako egongo da prest kanpo aldeko berdegunea. Gallastegik bertaraturako hainbat herritarren txistuen eta irain bat edo besteren artean egin zituen hitzok.

Zinema aretoarekin zer?, Urteaga kalearekin zer?, Zabalotegi auzoarekin zer?, Apartheid politikoarekin zer? eta halako galderak zituzten pankartatxoekin sartu ziren herritarrok ekitaldira.

Gallastegiren ondotik, diputatu nagusiak hartu zuen hitza, eta

hark ere jaso zuen txisturik: "Inaugurazio hau pozgarria da Aldundiarendako", esan zuen. "Legegintzaldiaren hasieran programa zehaztu genuen Udalarekin eta hitzartutakoa aurrera doa eta aurrera jarraituko du. Izan ere, historian barrena Bergarak funtzio nabarmena izan du Gipuzkoan eta funtzio nabarmen horrekin jarraitu egin behar du"; hala, azpiegituren beharra azpimarratu zuen.

Ohorezko aurrekua dantzatu eta plaka oroigarria bistaratu eta gero, instalakuntzak ikusteko bisita egin zuten. Bien bitartean, eraikinaren kanpoaldean, laster bereitu zen ika-mika sortu zen herritar batzuen eta Ertzaintzaren artean. Handik gutxira, 13:00etan, ireki zituen ateak Agorrosingo ekintza-gune berriak, herritarrek, lehenengoz, bertatik bertara ikusteko.



JOSETXO ARANTZABAL

Hainbat gairen gaineko kezka azaldu zuten elkarretaratzean batutakoek.



JOSETXO ARANTZABAL

Pankartatxoetan idatzitako hainbat galderak eroan zizkieten agintariak.



JOSETXO ARANTZABAL

Instalazioak goitik behera ikusi zituzten agintariak.

• ETA HERRITARREI ZE IRUDITU ZAIE GUNE BERRIA?



BITTORI ETA NEKANE | BERGARA

"Gustatu zaigu. Gune asko eta egokiak ditu", esan ziguten. Etxean dantzari gazteak dituzte, eta lokal horietako bat "dantza entseguetarako erabil zitekeela" uste dute amak eta amamak. Orain, kanpoko aldea nola geratuko den zain daude.



JOSE LUIS, MIREN ETA JUAN MARI | BERGARA

Gunea oso ondo dagoela iruditu zaio Juan Mariri eta Jose Luisi ere polita iruditu zaio: "Ez gaude hala-koak ikustera ohituta", aitortu dute. Handia dela gehitu dute eta bereziki nabarmendu dute gimnasioen tamaina. Bestalde, izango duen funtzionamenduari arreta berezia jarri diote.



CARLOS ETA CARMEN | BERGARA

"Gustatu zaigu. Gela asko eta txukunak ditu eta taberna ere oso ondo dago. Igerilekua ere polita iruditu zaigu", esan ziguten. Ikusitakoa gustatu egin zaien arren, zuhur azaldu zen bikotea: "Orain, nola funtzionatuko duen ikusi behar da".



GORETI ELORTZA

Bixente Lazkano, Aitor Zabaleta, Pol-Pol mendizale taldea eta Anttoni Zumelaga urrezko dominekin.

Erreileno eta Tostoiien Kofradiak ohorezko lau kide berri izendatu zituen atzo

Bixente Lazkanok, Aitor Zabaletak, Pol-Pol mendizale taldeak eta Antxon Zumelagak egin zuten zin izendapena VII. kapituluan

Goreti Elortza

Azkeneko zazpi urteetan egin izan duen moduan, kapitulua egin zuen atzo kofradiak San Martin jaien barruan. Ekitaldi horretan izendatu zituzten ohorezko lau kofradiakideok.

Ohorezko izendapenok udaltxeko bilkuren aretoan egin zituzten, eguerdian, Euskal

Herriko nahiz Estatu osotik etorritako beste hamazazpi kofradiatako kideen aurrean.

Victoriano Gallastegi alkatea ezin izan zen ekitaldira joan, eta Luis Abajo Kultura zinegotziak bete zuen haren lekua. Jendeari ongietorria eman ondoren, Juan Luis Bikuñak hartu zuen gidaritza. Bikuñak ohorezko kide izateko puntuan zeudenak aur-

keztu zituen, baita izendapenerako arrazoiak eman ere.

Bixente Lazkano soinu-jolea izan zen lehenengoa: "Bere soinuarekin ehunka ezkontzatan aritua". Aitor Zabaleta auto gidariaren txanda iritsi zen gero: "Euskal Herriaren zein Estatuan sari mordo irabazita, leku askotara eraman du herriaren izena", esan zuen Bikuñak. Anttoni Zumelaga sukaldariari buruz, orain dela 63 urte bere aitak hasitako bidea jarraitu izana nabarmendu zuen Bikuñak. Azkenik, Pol-Pol taldeko presidente Jon Ander Gantxegi deitu zuen, taldeak 64 urte haue- tan egindako lan handiagatik.

Kide berriak aurkeztu ondoren, laurek erreileno eta tostoiak munduan ezagutarazteko hitza eman zuten.

ALAI TALDEAK ABESTU ZUEN
Ekitaldiarekin amaitzeko, iaz ohorezko kide izendatutako Alai Taldeak abestu zuen. Pol-Pol taldeko ereserkia ere abestu zuten.



SAN MARTINAK. Eguraldiak lagundu ez badu ere, urteroko mar- txan ospatu dituzte San Martinak Bergaran. Bi danborradek izan zuten irteteko aukera: nagusienak egubakoitz gauean eta gaztetxoek zapa- tu arratsaldean. Eta suzko erruberak bota zituzten zapatu gauean Agorrosindik. Giroa ona izan da jaietan. Egubakoitzean ez zen jende askorik ibili, baina zapatuan inguruko jende dezente joan zen. Oro har, lasaiak izan dira aurtengo jaiak. Hala ere, Irizar kaleko zapata denda bateko erakusleihoa apurtuta agertu zen domekan.

Udalak informazio-trafiko- a egin duela salatu du Arrasateko Ezker Batuak

Udalak Polmetasako hitzarmena itxi baino lehen EAJko kideek enpresa eraikitzailea sortu zutela dio EBk, informazio pribilegiatuarekin

Ubane Madera / Jon Berezibar

2004ko abenduan sinatu zuten Udalak eta Polmetasak lur- rak berriro kalifikatzeko hitzarmena. Orube horretan 220 etxebizitza eraikiko dira, eta Polmetasak San Andres Berri enpresari eman zion eraikitze lana. Bada, Ezker Batuak egubakoitzean salatu zuen etxebizitza horiek eraikitze enpresa-hitzarmena sinatu baino lehen sortu zutela enpresa. Hain zuzen ere, 2004ko urrian sortu zuten San Andres Berri enpresa etxegilea, eta Ezker Batuak adierazi du tartean EAJko hainbat kide ibili direla, "informazio pribilegiatuarekin" egin zutela adierazita. Hala, Karmelo Azkoitia -jelkidea eta Aretxabaletako zinegotzi ohia- hitzarmena sinatu eta gero San Andres Berriko ahal- duna moduan sartu zela dio Ezker Batuak. Enpresa eraikitzailea "fantasma" moduan agertzen du Ander Rodriguezek, esanez "espresuki" sortua izan zela Polmetasako etxebizitzak egiteko. Hala, Udalaren kudea- ketan "kasualitateak pilatu" egi- ten direla dio Ezker Batuko boze- ramaileak, eta zera gehitzen du: "Legezkoa dela esango duten arren, esan dezakegu zenbait per- tsona euren posizio politikoa era- biltzen dabiltzala alderdiko lagu- nen negozioak loditzeko". Horre- tan geratu barik, Rodriguezek agertu zuen Polmetasako lur- rak berriro kalifikatzeko prozesuan parte hartu zutela Agustin Ugar- tek, Arrasateko Udaleko Hiri- gintza zinegotziak eta Arrasateko alkate ohi Jose Maria Loitik, Gel- mako hitzarmena negoziatzen ibili ziren berak. Polmetasak era- baki zuen eraikitzeaz bera ardu-

ratu beharrean beste enpresa bati emango ziola lan hori eta San Andres Berri enpresa aukeratu zuten horretarako, hain justu. Horrek "argi erakusten du infor- mazio pribilegiatuarekin trafi- kua egiten ibili direla", dio Rodri- guezek. Momentuz, hala ere, Polmetasako etxeen gaia blokea- tuta dago Udalean, azken Hiri- gintza batzordean, EAJk izan ezik, gainontzeko alderdi guztiek ho- rren aurka bozkatu zuten-eta.

POLITIKA EGITEKO MODUAK

Salaketaren aurrean Inazio Lakuntza alkateak garbi utzi gura izan du Polmetasarekin duten hitzarmena gauza bat dela, baina enpresa hori libre dela nahi bezala jarduteko. Ezker Batuak duen jarrerari buruz ere eman du bere iritzia Lakuntzak: "Ez da Udalaren politika egiteko estiloa salaketaz salaketa ibil- tzea, eta alderdi batzuek mikro- fono bat behar dute aurrean poli- tika egiteko".

Bestalde, gaur aldatuko da Gelmako hitzarmena. Ezker Batuaren aurkako botoarekin onartuko da Udalaren apro- btxamendua %10ekoa izango dela eta konpentsazio berriak jasoko direla.

Horrekin batera, bermatuko da enpresak Arrasaten 20 urtez jarraitzea.



UBANE MADERA

EB, egubakoitzeko agerraldian.


Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxaurtxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Drogei buruzko ahalik eta informazio gehien eman guran, bost urte darama AiLaket! elkarteak gaurik gau drogen testak egiten. Juanjo Fernandez

arduraten da jaietan ipini ohi duten postuan informazioa eta orientazioa emateaz. Euren esanetan, informazio objektiboa dute helburu.

JUANJO FERNANDEZ | AILAKET! ELKARTEA

"Kontsumitzaileak mezua jasotzeko, alde txarrak eta onak ere esan behar dira"

Jon Berezibar

Zein filosofiarekin bideratzen duzue informazioa?

Prebentzioa da ikuspuntua. Guk, bai maila pertsonalean zein gizarteari, drogen informazioa eman gura dugu, ahalik eta arrisku gehien ekiditeko.

Nolako da drogei buruz jasotzen den informazioa?


Geroz eta manipulazio txikiagoa dago, baina dagoen informazio ia guztiak drogaren alde bakarra erakusten du, haien alde txarra; eta prebentzioak alde batera utzi du drogak ere ondo pasatzeko edo sentitzeko kontsumitzen direla. Drogen arriskuak eta alde onak batzen ez baditugu, oso zaila izango da kontsumitzaileei gure mezua helaraztea. Orain arte alde txarra bakarrik erabili da eta horrek drogak hartzen dituen jendearen gehiengoari informazio guztia ez heltzea ekarri du.

Zein motatako drogak analizatzen dituzue?

Hasiera baten, gehienbat kalamua eta marihuana dira, baina merkatuan dauden beste droga batzuekin ere etortzen da jendea: speeda, kokaina, pilulak... Adibidez, heroina, tripiak edo mongiak aztertzeke metodo zehatzik ez dugu. Estasia eta ketamina ere noizean behin aztertzen ditugu. Kalamuarekin etortzen da jende gehien, ze asko kontsumitzen baita. Alkoholari buruz ere galdera ugari egiten dizkigute eta guk droga legalei zein legez kanpokoei buruz ematen dugu: alkohola, tabakoa zein kafea.

Zelakoa da kontsumitzen den drogaren kalitatea?

Kalamuaren kalitatea nahiko txarra da, baina horrek ez du esan nahi arriskurik dagoenik, hau da, adulterante arriskutsurik duenik. Kontua da hemen erretzen den kalamua Marokotik datorrela; herrialde hori Europa osoaren hornitzailea da eta ez du ekoizpen nahikorik kalitate onean banatzeko. *Kolokatzen* zaituen substantziaz gain, tartean daude marihuana landarearen beste zati batzuk, baina izaera vegetala dute eta ez dira oso arriskutsuak. Oso kalitate txikia dauka speedak ere. Anfetamina da speedaren berezko substantzia eta kalemuan normalean %20an aurkitzen da. Kafeararekin ere nahasten dute askok speeda, ze efektu antzerakoak baititu, bizigarria da eta merkatuan oso merke aurkitzen da. Speed



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako gaztetzean egon ziren zapatuan AiLaket taldekoak.

"Kalamuak nahiko kalitate eskasa du, baina horrek ez du esan nahi adulterante arriskutsurik duenik"

"Gehienetan jendeak nahasketen kontua galdetzen du, ea zein droga nahas daitekeen zeinekin"

"Gazteenei informazioa baino gehiago balioak eman behar zaizkie, askatasunez erabakitzeko"

gehienetan kafeina gehiago dago anfetamina baino. Kontrako kasua litzateke kokainarena, nahiko kalitate ona izaten du-eta oro har, gehienetan %60tik 70era.

Zer-nolako erantzuna izaten du zuen informazio-guneak?

Normalean lan mordoa izaten dugu, hasieratik bukaera arte. Gehienbat nahasketen kontuak galdetzen ditu jendeak, ea droga bat bestearekin nahas daitekeen-edo. Asteburu guztietan kontsumitzen duen jendeak epe luzerako ondorioei buruz galdetzen du. **Kontsumitzaileak izan ohi du nahiko informazio?**

Jende gaztearekin lan handia dago egiteko; helduagoek, berriz, esperientziarengatik edo ondokoari ikusitakoarengatik, bada-kite gehiago. Asteburu badago jende gazte kopuru bat drogak hartzen dituen eta euren bizitzan ez dute arazo larririk, eta horrek esan nahi du jendeak badakiela nola ibili. Gazteenek ez dute horrenbesteko informazioerik behar; balioetan hezkuntza bat behar dutela iruditzen zait, askatasunez erabakitzeko gauza izan daitezen.

"Auzitegi Nazionalari stop esateko" dei egin du Askatasunak

Egubakoitzerako manifestazioak deitu dituzte, Arrasaten eta Antzuolan, arratsaldeko 7etan

Monika Belastegi

"Auzitegi Nazionalak desagertu egin behar du euskaldunontzat". Halaxe dio Askatasunak, eta horixe exijituko diote Zapateroren gobernuari, baldin eta "sinesgarritasun demokratikoa izan nahi badu euskaldunontzat".

Askatasunak gogora ekarri duenez, irailetik urrira bitartean 114 lagun -tartean debagoiendarrak- ari dira epaitzen hainbat auzitan Madrilgo Auzitegi Nazionalan, besteak beste 18/98 auzian eta atxiloketa prebentiboen auzian. Hala, Askatasunak argi du "Auzitegi Nazionalak bere ekinbide errepresiboari eutsi nahi diola". Horren guztiaren aurrean "euskal bizitza politikoa behin eta berriro baldintzatzen duen" tribunala dela dio. Gauden une politikoa kontuan hartuz, "agian elementurik kezagarriena da Auzitegi Nazionala arma errepresibo moduan jokatzen ari den papera", eta gehi-

tzen du azkeneko hilabeteetan inoiz ez bezala ari dela "lanean". Horren haritik, Askatasunarendako egoera hori ez da batere kasuala eta "atzean erabaki politikoa maltzur bat dago: urtetan Euskal Herrian Espainiako Estatuak erabili duen gerra eta zampaketarako tresneria osoa legitimatzea". Horren helburua "prozesua desitxuratzea" dela diote. Eta zera gehitu dute: "Auzitegitik ezartzen diren neurri errepresiboekin Estatuak lortu nahi duena da arazo politikoa alboratu eta prozesua indarkeria arazo batera mugatzea".

MANIFESTAZIOAK BARIKUAN IBARREKO BI HERRITAN

Horren guztiaren aurrean, Auzitegi Nazionalari stop esateko mobilizazio eguna deitu du Askatasunak egubakoitzerako. Bi manifestazio egongo dira: Arrasaten Seber Altubetik abiatuko da, 19:00etan, eta Antzuolan, berriz, Zurrategi plazatik ordu berean.

Egubakoitza ezkerro zabalik dago Urteaga kalea, Antzuolarako bide zaharra

Ia hiru urtez itxita egon da, harrobi zaharraren gaineko mendi magala eusteko lanak egin dituzten bitartean

Monika Belastegi

Egubakoitz iluntzean zabaldu zuten ibilgailuendako Bergarako Urteaga kalea; Antzuolarako bide zaharra, hain justu.

Ia hiru urtez egon da itxita bide hori ibilgailuendako zein oinezkoendako eta harrobien gaineko mendi magala eusteko lanak guztiz bukatu ez dituzten arren -azarora arte iraungo dute lanek-, dagoeneko zabalteko moduan zegoela aurreratu dute Aldundiko Errepide Departamentutik.

Mendiaren magala eusteko lanak bi fasetan egin dituzte, eta, hain justu, bigarrena da bukatzeaz daudena. Lehenengoa 2005ean egin dute eta irristatze

gunearen goiko zein erdiko aldeetan pareta bana egin dute. Bigarren fasea 2006an egin dute eta horretan ere bi pareta egin dituzte. Paretok egiteko eta lur-jauzurik berriro ez gertatzeko, lurra kendu dute menditik eta harrobien sartu dute. Bestalde, paretak handiak eta sendoak dira: egin duten hirugarrenak, esaterako, 54 metro ditu luzeran eta lau altueran. Aldundiak egingako lanok 6,2 milioi euroko aurrekontua izan dute.

HAINBAT ERAGOZPEN

2003ko maiatzean itxi zuten Urteaga, eta horrek hainbat eragozpen eragin dizkie inguru hartako bizilagunei, enpresei eta bergarar zein antzuolarrei, oro har. Izan ere, 2,5 kilometro gehiago egin behar izan dituzte herri batetik bestera joateko.

Euren etxebizitza laga behar izan zuten bost familiarren kasuan, oraindik ez dute etxera itzultzeko jakinarazpenik jaso. Izan ere, euren etxe ostean hainbat lan daude oraindik egiteko. Aldundiak Udalarari arriskurik ez dagoela jakinarazi eta Udalak baimenduko du itzulera.

AZOKA ETA SAGARDEGIA | HERRIKO BASERRITARREN AZOKA ETA X. SAGARDO EGUNA IZAN ZITUZTEN ZAPATUAN ELGETAN

Egitarau aproposa antolatu zuten elgetarrek baserri giroan jarduteko

Baserriko Batzordeak Udalarekin elkarlanean antolatu du I. azoka eta Sagardo Eguna Gazte Asanbladaren urteko ekimena da

Goreti Elortza

San Martin eguna aukeratu zuten elgetarrek baserriko produktuen lehen azokarako. Baserriko batzordeak Udalarekin antolatutako ekimena izan da, baserrietako produktuak ezaugarazteko. Herriko plazan batu ziren Elgetako baserriarrak goizeko 11etan eta hamalau postu jarri zituzten. Horietatik hiru Angiozarkoak ziren. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, jende nahikotxo hurbildu zen, barazki, fruta zein pastelak erostera. Bi orduz izan zituzten produktuak salgai, eta gero, bazkaria egin zuten guztiek Iñaki jatetxean.

Bide batez, Elgetako futbol taldekoek egun berezi hori aprobetxatu zuten taldearentzako dirua lortzeko. Mahaitxo baten bazkide izateko eta kiniela egiteko aukera eman zieten hurbildutakoek.

X. SAGARDO EGUNA

Gazte Asanbladakoek, bestalde, X. sagardo eguna antolatu zuten arratsalderako. Plazan edalontziak salgai jarri zituzten 1,5 euro-

ren truke eta herrian zehar sei kupela banatu zituzten. Hiru plazan zeuden eta gainontzekoak herriko hainbat tabernetan.

Eta urteroko patata tortilla lehiaketa ere egin zuten arratsaldean. 18:00etan hasita hogeita sei talde aritu ziren sukaldari lanetan. Tortilla egiten zihardutela, joko batzuk ere egin zituzten animatu ziren taldeek: arto jokoa, zakuena... Baina lehia berdinketan amaitu zen azkenean, Elgetako Gaztetxia eta Txapela taldearen artekoa, hain zuzen. Giro bikaina egon zen plazan.

Iluntzeko zortziak aldean izan zen tortilla lehiaketako sari banaketa: lehen saria Intxortako Mariak taldeak eraman zuen. Denetariko jaki-sorta pozik hartu zuen taldekideetako batek. Talde originalenaren saria, berriz, iii... Gaztetxi taldeak eraman zuen etxera. Haiei sukalde-



JOSETXO ARANTZABAL

Baserriko produktuen azoka jarri zuten zapatu goizean herriko plazako arkupeetan.

Azoka datutan

• 14 POSTU

Elgetako baserrietako produktuak jarri zituzten salgai plazan, hamalau postu egon ziren.

• 26 PATATA TORTILLA

Hogeita sei talde aritu ziren tortilla lehiaketan. Urtero egiten da lehiaketa hori eta beti animatzen da jendea.

• 360 LITRO SAGARDO

Sei kupela jarri zituzten herrian. Hiru plazan eta gainontzekoak tabernetan.

rako tresneria opari egin zieten. Azken taldeak ere eraman zuen saririk: tortilla eskasena egitearren patata zakua eman zieten Maya taldekoei. Praktikatzan jarraitzeko edo...

ETA GAUEAN GEHIAGO

Gauerako ere antolatu zuten jaia gaztetxekeok. Sagardotegiko menua afaldu ondoren, kontzertua egon zen gaztetxean Kabul taldearekin. Kontzertua bukatu ondoren, talde sorpresa bat ere izan zuten gaztetxean: duela 10 urte egindako *playback*-a berreskuratu zuten. Egun luzearekin amaitzeko, karaokea egin zuten.



GORETI ELORTZA

Iii... Gaztetxi taldekoek irabazi zuten tortilla originalaren saria.

• LEINTZ GATZAGAKO ERRETIRATUEN BAZKARIA

31 LAGUN BATU ZIREN TOKI EDER ELKARTEAN BAZKALTZEKO ETA DANTZA SAIORAKO

Zapatuan euren eguna ospatu zuten Gatzagako erretiratuek. Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, 31 lagun batu ziren Toki Eder elkartearen bazkaltzera. Sarrerakoak, bakailaoa, mingaina, postrea eta kafea izan zuten menuan. Bazkaldu eta gero trikitilariak izan ziren eta Juan Mari Altube *Pequeño*-k esan digunez, majo egin zuten dantza, "gerriko, mokorreko... eta halako minak hurrengo egunera arte ez dira igartzen-eta".

Erretiratuen artean gizonezko nagusia Narciso Beitia da, 96 urterekin eta emakumezkoa Matilde Arrese, 88 urterekin. Biak hala biak opariarekin itzuli ziren etxera. Narciso makulu berriarekin eta Matilde lore sorta ederrarekin.



JOSETXO ARANTZABAL

Albiste izango da

ARAMAIO | HITZALDIA EGINGO DUTE ETZI

Aramaioko oinarrizko gizarte zerbitzuak aztergai asteen

Aramaioko oinarrizko gizarte zerbitzuen gaineko hitzaldiarekin hasiko dute aurtengo Aste Kulturala. Hitzaldia etzi izango da, 17:00etan, kultura etxean. Susana Martinezek egingo du berba; Martinez udaletxean dagoen gizarte laguntzailea da eta baita Zuia Koadrilakoa ere. Alaiak Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak antolatu du eta euren asmoa da herriko erretiratu eta pensiodunek Aramaioko oinarrizko gizarte zerbitzuaren gainean dituzten zalantzak argitzea. Antolatzailleek nahi dute, baita ere, herri-tarrek ekarpenak egitea herrian zer nahiko luketen jakiteko.

DEBAGOIENA | LUR-JAUZI BATENGATIK ITXI ZUTEN

Gaur, astelehena, zabalduko dute Mugarriteko sarrera

Nahiz eta lan guztiak astelehenerako bukatuta ez egon, bidea zabalteko moduan egongo dela adierazi dute Bidegitik. Uztailaren 6an itxi zuten Aretxabaletatik Arrasatera sartzeko Mugarriteko sarrera, bertan lur-jauzi bat izan zelako. Bidegitik esan dutenez, saihesbidera jausitako lurra berehala jaso zuten. Hala ere, konponketak egitea erabaki zuten, etorkizunean lur-jauziak ekiditeko asmoz. Hori dela eta, orain arte ez dute bidea zabaldu, pareta batzuk indartzeko lanak egiten ibili direlako. Orain arte, Aretxabaletatik Arrasaterako bidea egin dutenek bide zaharretik edo Bedoñako sarreratik joan behar izan dute. Datorren astelehenetik aurrera, ordea, Mugarriteko bidea erabilgarri egongo da.

ARRASATE | AZOKARAKO MATERIALA BATZEN ARI DIRA

Mugikortasun Astea egingo dute gaur hasi eta hilaren 24ra arte

Aurten ere Arrasateko Udalak Mugikortasun Astea egingo du, gaur hasi eta hilaren 24ra bitartean. Ekintza ugari antolatu dituzte aste horretarako, baina herritarrei aurretik jakinarazi beharreko bi badira: birzikleta merkatua eta era eraginkor eta ekonomikoan gidatzeko ikastaroa. Merkatuak materiala irailaren 16an, 19an eta 21ean jasoko dute Udal Azokan. Ikastaroan parte hartzeko izenemate epea bihar, hilak 19, amaituko da.

Bestalde, eguaztenean, 17:00etan, herrian barrera bizikletan ibiltzen ikasteko praktikak egingo dituzte Laubide plazan. Nork bere bizikleta eroatea gomendatzen dute. Han hamar egongo dira, baina 11 urtetik gorakoendako. Kaskoa eroatea derrigorrezkoa izango, eta adin guztiendako dago zabalik.

OÑATI | ENTSEGUETARA JOATEKO DEI EGIN DUTE

Danborradarako entsegu egunak gogora ekarri nahi izan dituzte

San Migel jaiak heltzeaz daude eta ekintza ugari antolatu dituzte oñatiarrek; horien artean, urteroko danborrada. Hala ere, antolatzailleek diotenez, jende asko ez da entseguetara joaten, eta horrek danborrada arriskuan jar dezake. Hori horrela, entseguetara joateko dei egin dute eta, bide batez, entsegu egunak martitzen eta eguena direla ekarri dute gogora. Ordu-tegiari dagokionez, umeek 19:00etatik 20:00etara izango dute entsegu eta nagusiek, berriz, 20:00etatik 21:00etara. Umeen danborrada irailaren 23an izango da, 18:00etan; eta nagusien irailaren 28an, 23:00etan.

ARRASATE | ESKU-ORRIAK BANATU DITUZTE BOZKATZEKO

Herritarrek ere hautatu ahalko dute kooperatiben gaineko eskultura

Udalak kooperatiben gaineko eskultura lehiaketa antolatu du. Helburua da Arrasateren eta kooperatibaren arteko lotura irudikatzea, ibarraren berrikuntza eta garapena azpimarratzea eta kooperatibismoari omenaldia egitea. Hamaika lan aurkeztu dituzte lehiaketara eta barikua ezkerreko hila-22ra arte lan guztiak ikusgai egongo dira –ez originalak, tamaina txikiagokoak baizik– Monterrongo erakusketa aretoan, goizez eta arratsaldean. Hori horrela, posta bidez Udalak esku-orri bat banatzen dihardu, herritarrek gustuko den eskultura bozkatzeko. Aukeraketa egiteko, herritarren iritziaz bozketaren %30 balioko du; epaimahaiarenak, %70.

Hitzordua



YOGA, TAI CHI, CHI KUNG ETA GESTALT TERAPIA IKASTAROAK |

Lau ikastaro Arrasaten izango dira, bi Aretxabaletan eta bat Oñatin

Gaur, astelehena, chi kung erakustaldia egingo du Estibaliz Diez-Caballerok Oñatiko ikastolan (argibideetarako telefonoa: 635 72 08 36). Tai chi ikasteko aukera ere badago, kasu honetan Arrasaten. Eskola horietan izena emateko, deitu 679 64 24 91 zenbakira. Arrasateko Yoga Elkarteak, bestal-

de, biodantza ikastaroa emango du. Azkenik, Arrasateko Emakume Txokoak ere yoga eta tai chi ikastaroak emango ditu emakumeendako.

Yoga eta gestalt ikuspuntua landuko dituzte Aretxabaletako Aredhana elkarteak. Hauze da telefonoa: 616 96 57 95.

ANTZUOLA |

• **Oinarrizko informatika ikastaroan izenematea**
Oinarrizko informatika ikastaroa emango dute urritik urtarilerara. Izenematea zabalik dago irailaren 20ra arte, udaletxean.

ARETXABALETA |

• **Espetxe Pastoraltzak hitzaldia antolatu du**
Espetxe Pastoraltzak antolatu-ta, Luis Maria Medinak, Martuteneko kaperauak, hitzaldia egingo du gaur, astelehena, parrokiako lokaletan, 18:00etan.

ARRASATE |

• **Katekesian izena emateko epea, laster zabalik**
Ikasturte berrian 1. maila hasi duten umeek katekesirako izena eman dezakete hilaren 20an eta 21ean, abadetxean, 17:30-19:00 ordu-tegian.

• **Bat-bateko mezularitzaren gaineko ikastaroa**
Bat-bateko mezularitza erabiltzen irakatsiko dute hilaren 19an eta 20an, martitzena eta eguaztana, KZgunean, 11:00etatik 13:00etara.

• **1943. urtean jaiotako emakumeen batzarra**
Urriaren 7an ospakizuna egingo dute Hilarion jatetxean. Parte hartzeko, 20 euro ordaindu behar dira Muruamendiaraz gozotegian.

BERGARA |

• **Bi ikastaro antolatu berri ditu Udal Kultura Sailak**
Sendabelarrak ezagutzeko eta altzariak zaharberritzeko ikastaroak antolatu dituzte, urrian hasteko. Izenematea zabalik dago kultura etxean.

• **Guraso eskolan izena emateko epea zabalik dago**
Guraso eskola antolatu du Udalak 2-6 urte bitarteko seme-alabak dituztenendako, eta izenemate epea zabalik dago irailaren 27ra arte. Argibideetarako, deitu 943 77 91 26 telefono zenbakira.

• **1948an jaiotakoek afaria egingo dute hilaren 23an**
1948an jaiotakoak elkarrekin afaltzeko batuko dira hilaren 23an, zapatua. Frontoiko plazan batuko dira, 21:00etan, eta Zabalan afalduko dute. Izena emateko, sartu 50 euro Euskadiko Kutxako kontuan.

• **Etorri berriendako euskara ikastaroak antolatu dituzte**
Euskara ikasten hasteko 60 orduko ikastaroa antolatu dute Udalak eta Udal Euskaltegiak. Euskal Herrira etorri berriendako da. Izenematea zabalik dago hilaren 22ra arte: 943 77 91 31 (udaletxea) edo 943 76 44 53 (Udal Euskaltegia).

• **Alderdi Egunera joateko autobusa antolatu dute**
EAlk hilaren 24an ospatuko du Alderdi Eguna Forondan, eta

Bergararik joateko autobusa egongo da. Bergarako Txosnan bazkaria izango da. Argibideak, batzokian.

DEBAGOIENA |

• **Mihiluze saiorako lehiakide bila dabil ETB katea**
Mihiluze lehiaketan parte hartzeko gertu dagoen jendea behar du Euskal Telebistak. Izena emateko, lehiakide zein publiko moduan joateko, deitu 943 01 17 80 telefonora.

LEINTZ GATZAGA |

• **Salies de Bearn herrira irteera egingo dute sorginek**
Sorginak emakume taldekoak Frantziako Salies de Bearn herria ezagutzera joango dira irailaren 23an eta 24an. Intere-tuek lehenbailehen eman behar dute izena 943 71 50 04 telefonoan (Mari Karmen).

OÑATI |

• **Bernabe Tierno psikologoak hitzaldia egingo du**
Bernabe Tierno psikologoak hitzaldia egingo du hilaren 21ean, eguena, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

• **Izena eman daiteke dagoeneko Udal Euskaltegian**
Udal Euskaltegian matrikula egiteko aukera dago irailaren 20ra bitartean. Argibideak: 943 78 24 96 edo euskaltegia@oinati.net.



Harremanetan sinistea eskatu aurretik ematea da.

Aurre-igarmena dei geniezaioke, baina hori baino gehiago da. Harreman batean denok bilatzen duguna. **Kutxa**n, hain zuzen ere, gure bezeroen premiei aurrea hartzea garrantzi handikoa dela uste dugu. Plangintza eta azterketa baitira gure lanaren oinarri. Horrela bakarrik ahal izango zaitugu harritu, irtenbiderik onenak eskainiz.

zer nahi duzu bihar?

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• **Aurten nesken futbolik ez Bergarako Kirol Elkarte**
Bergarako Kirol Elkarteak orain arte erregional mailan nesken taldea atera badu ere, aurten ez da nesken talderik egongo. Hala, kirol elkarteak aurten taldearekin aurrera jarraitzeko egin dituen ahalegin urriak salatu gura izan du irakurle batek, orain arte aipatutako nesken taldearen kide izandakoa. Azaltzen duenez, iaz elkartekoei entrenatzailez aldatzeko eskatu zieten neskek, baina hori ez da gertatu, eta, elkartearen erakutsitako interes urria ikusita, jokalariek ez jarraitzea erabaki dute. Irakurleak salatzen duenez, "mutilen talderen batek kexu bera izanez gero lehenago arduratuko ziren, baina gure kasuan ez dira askorik mugitu", dio jokalariek ohiak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Sarean harrapatuta

Euriborra asko igo da azkenaldian. Egonkortuko da?

Euriborra %3,588ko mailara iritsi da. Gainera, iazko iraila ezker igo eta igo besterik ez da egin. Europako Banku Zentralak nabarmendu du oso gertutik zainduko dituela faktore guztiak etorkizunean,

prezioen egonkortasuna bermatzeko. Uneotan arriskuak kontrolpean daudela baina tentsio geopolitikoaren arriskua hor dagoela gogorarazi dute. *Goiena.net*-en bildutako iritziak dituzue hemen.

INTERES ASKO DAGO HOR JOKOAN

Nik ez dut uste prezioen egonkortasuna bermatuko duenik Europako Banku Zentralak. Uneotan arriskuak kontrolpean dituztela diote baina tentsio geopolitikoaren arriskua ere hor dago eta interes asko dago jokoan oraindik ere, batez ere interes ekonomikoak.

Lolo / www.goiena.net

AUKERA DUTENEAN IGOKO DUTE BERRIZ

Eta honekin galtzen irtengo da, betiko moduan, herritar xumea, hipoteka baten leporaino sartuta dagoena. Aberatsei ez zaie asko inportatuko euriborra nola dagoen jakitea, beraiek mailegurik eta hipotekarik ez dute-eta eskatzen. Baina besteok eutsi eta isildu egin behar... Egonkortuko den? Ez dut uste. Aukera duten egunean berriz ere igoko dute ditoxozko indizea.

Euri / www.goiena.net

EURIBORRAREN IGOERA JASANDAKOAK GARA

Lehen ere euriborraren igoera handiak jasandakoak gara asko. Baina, orduko eta gaurko egoera oso ezberdina da. Gaur egun gazte asko daude leporaino sartuta hipoteka edo mailegu batekin; gu gazteak ginenean ez geun-

den hain sartuta. Etxeak, portzioan begiratuta, merkeagoak ziren lehen. Martxa honetan ez dut uste euriborra asko egonkortuko denik, berehala igoko dute berriz ere, gutxien espero dugunean.

Lengua / www.goiena.net

GASTUAK IGOTZEN DIRA; SOLDATAK, ORDEA, EZ

Nik poltsikoan igarri dut. Egunean daude gastuak: gasolina, erosketak, hipoteka, telefonoa, argia, ura... eta dentista edota o-

sun konturen bat badago tartean, gureak egin du! Gastuak ugaritzen badira eta soldatak ez badira igotzen, ea zer egin beharko dugun.

Miren / www.goiena.net

EURIBORRARI AURRE EGITEKO AURREZTU

Euriborra igotzen denean kexu... Beti kexatzen gara edozein gauzagatik. Gaur egungo gizartean gaizki ohituta gaude. Dena egin nahi izaten dugu, dena erosi eta ez dugu ezer aurrezten. Aurreztuko bagenu eta hainbeste mailegu gabe bizi, hobe izango litzateke. Euriborrari begira ez ginateke biziko orduan.

Kexu / www.goiena.net


IGOTZEN JARRAITUKO DU EURIBOR INDIZEAK

Aurten etxebizitza bateko hipoteka eskatu dut eta euriborrak gora egiteak zuzenean eragiten dit. Bankuan galdetu dut ea euriborrarekin zer gertatuko den. Ez didate han erantzun garbirik eman. Beraz, ez dut uste egonkortuko denik. Ez dakit ze abiaurarekin, baina seguru igotzen jarraitzen duela. Eta bitartean, hipoteka batean sartuta gaude edo mailegua eskatu dugunok dirua galtzen jarraitu beharko dugu.

Igor / www.goiena.net

www.goiena.net

Euribor indizea asko igo da azkenaldian. Egonkortu egingo dela uste duzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Banandu eta gero, kasu ia guztietan geratzen dira seme-alabak amarekin. Zergatik



LARRAITZ UGARTE |
ABOKATUA

Argi hiru gai ikusten dira: aita oso gutxi eskatzen dutela zaintza, nahiago izaten dute amarekin uztea seme-alabak; bestetik, oraindik ere fiskalak eta epaileak oso kontserbadoreak dira; eta hirugarren bat litzateke gurasoen artean oso baldintza onak beharko luketela konpartiturako.



EDURNE ARRUTI |
GIZARTE LAGUNTZAILEA

Aitak gero eta ardura handiagoa hartzen badabilta ere, betidanik amak hartu du haren gain seme-alaben zaintza. Era berean, aiten gutxiengo batek eskatzen du haien zaintza izatea, eta, dibortzioa gatazkarekin gertatzen bada, adin txikikoaren interesak babesteak du lehentasuna.



JON LOPEZ |
GIZARTE TEKNIKARIA

Haurren ongizatea bermatu behar da, eta guraso bakarrarekin hobeto egon ohi dira: egonkortasunarengatik, argi izan behar dute euren erantzule nagusia nor den, eta egoitza finkoa behar dute. Nik kasu gehienetan haurrak amarekin hobeto daudela uste dut, eta epaileek ere.



EIDER ALTUNA |
PSIKOLOGOA

Haurtaren aurrean egonkortasuna emango dion egoera hartu behar da kontuan, umearen ongizatea bilatzeko helburuarekin. Haren bizitzan kalte txikiak ekarriko dion egoera topatzen saiatu behar dugu, baina beti aurrean dauden aukerak kontuan izanda.

Egunkarietako harribitxiak

NOLA BIZI 100 URTE BAINO GEHIAGO

Ikerketa Zientifikoen Kontseiluak ikerketa abiarazi du. 100etik gora urte dituzten Estatuko hainbat lagun izango du oinarri. Haien osasun eta bizi baldintzak aztertuko dituzte, haien bizitza-luzeraren arrazoiak jakiteko asmoz. Avila da urtetsu gehien duen probintzia: 107 urteko 32 gizon eta 75 emakume daude.

'El País'
2006-09-17



TRENK GABE, TRAIIDOREA IZATEAGATIK?

XIX. mendearen bukaeran, Frantziak interes handia zuen Pirinioez gaindiko trenbideak egin zitezela. Afrikako iparraldeko kolonietan arazoak izaten hasiak ziren, eta ahalik eta gehien txikitu nahi zuten kolonien arteko distantzia. Nafarroan, 3. karlistadaren ondotik, 1876an, Pirinioez gaindiko bi trenbide proiektu sortu ziren, lurraldea Europarekin lotzeko. Proiektuetako bat Aldudetik

igarotzen zen eta bestea, Erronkaritik. Canfrancen (Huesca) beste bat egin nahi zuten. Eta hura gailendu zen. Iñaki Suso historialariak *Alduides vs. Roncal* liburuan jaso duenez, Nafarroa traidoretzat jotzen zuen Espainiako Gobernuak karlisten oinordekoen alde egiteagatik. Hala, zapuztu egin zuen Nafarroan trena izateko aukera.

'Berria'
2006-09-17



Tira, tira...

CUMBRE "NO ALINEADOS"



Bat egin ez dutenen goi bilera.

Zulet 'El Diario Vasco' | 2006-IX-17

Zorroztailea



Pertsonak baina ez

Ciudadans a la Generalitat alderdi antinazionalistako hautagaiak biluzik aurkezten da hauteskunde-karteletan. (...) Erabat bilutsik agertzen da, 'Pertsonak baina ez zaizkigu inporta' lelopean. (...) Hautagaiak esan zuen hauteskunde kartelak adierazten duela hauteskundeetara "gardentasunez eta apaltasunez" aurkezten dela.

'El Mundo' | 2006-09-17

Elena Laka

Kataluniari aitzindarritza aitortzen badiogu ildoak irekitzen, laster dugu geurean hautagai biluzien moda. Gardentasuna eta apaltasuna adierazteko. Kito kolore argiak karteletako erropetan, jendeari bostekoa luzatzea, merkatuetan umeak altxatzea. Pertsonak baina inporta ez zaizkiela adierazteko, arroparik gabe karteleratuko zaizkigu morroi hautagaiak. Zergatik da ezberdin hemen aldarrikatzen duten pertsona hutsa, eta gainerako alderdiengandik desberdinu nahi duten pertsona politikoa? Zein ezaugarriekin bihurtzen da gizaki bat pertsona, eta zeinekin pertsona politikoa?

Adibidez, pertsona hutsik baldin bada gure kezka, ez dago nazio edo estatu mugarik pertsonen joan-etorriarako. Ez dago lurralde-hesirik, eta eskubide berberak dauzka pertsona orok munduko edozein lurraldetan. Ez datoz "handik"

"hemen" daukaguna kentzeko. Pertsona hutsik, identitate nazional gabea baldin bada gure kezka, "handik" datorrenak ez dauka zertan "hemengo" hizkuntza ikasi beharrik. Gehiago oraindik, ez dago "hango" eta "hemengo" hizkuntzarik. Guztiok ingelesez? Pertsona hutsik, nazio-loturarik gabea baldin bada gure jomuga, zertan bultzatu eta babestu "gure" ekonomia, "gure" kultura? Zergatik "besteenaren" aurretik joan nahi, zergatik bermeak "gurea" zaintzeko? Karteletan biluzik agertzeak balio dezake narzismoa asetzeko, hautagaiak bere edertasun edo miserietan ikusteko edo hautagairik lerdeneza aukeratzeko. Otera, pertsonak baizik axola ez direla aditzera emateko, hobe pertsonen arteko elkartasuna eta berdintasuna helburu duten politikak, guztien nortasun pertsonala eta kolektiboa kontuan hartuz.

"Karteletan biluzik agertzeak balio dezake narzismoa asetzeko, hautagaiak bere edertasun edo miserietan ikusteko"

"Pertsonak baizik axola ez direla aditzera emateko, hobe elkartasuna eta berdintasuna helburu duten politikak"

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'

DE JUANAREN GUTUNA

"Azken hogeitun txotxongilo mediatiko nabarmenetako bat izan naiz eta, hala-kotzat, ederki jipoitu, iraindu eta txikitu naute. Ene gorabehera pertsonal, akademiko eta politikoez jendea ageriz eta ezkuztu toxikatu dute. Era guztietako aipu txarrak jasan, jasaten ditut. Gose-greba dut 'aski da!' esateko daukadan modu bakarra".

Iñaki de Juana
2006-09-17

'Noticias de Gipuzkoa'

ELKARRIZKETA

"MLNVren barruan ikusten dut daudela gatz batzuk uste dutenak paper zuri baten idatz dezaketela euskal iraultzaren benetako historia. Argudiatzen dute aurreko guztiak lasaitu egin direla, ahaztuz, zahartuz, burgestuz eta erreformista bihurtuz. Gero badiara ETaren nostalgiko izaten hasi direnak ere, horiek nagusiagoak izaten dira".

Txema Montero
2006-09-17

'El Diario Vasco'

ELKARRIZKETA

"Lehen ikasleek autonomia pertsonal handiagoa zuten; gaur egun ohituago daude gaur egindako jasotzera. Beste aldaketa handi bat da une oro interkomunikatuta daudela: Internet, poltsikokoa... Oraina bizi dute, etorkizunak ez ditu kezkatzen eta berehalakoa interesatzen zaie. Gizartea bezala dira, gizartearen erreflexu".

Mercedes Grijelmo
2006-09-17

'El Mundo'

ELKARRIZKETA

"Errespetu guztiarekin, uste dut EAJri gero eta zailagoa egingo zaiola instituzioetan jarraitzea. Hori da aurreikus daitekeena Batasunaren itzuleratik. EAJri ez dio onik egingo, baina eurek jakingo dute zer egin behar duten. (...) EAJk gure atea joko du eta ireki egingo diogu, baldin eta lehen zeukan zentzutasuna berreskuratzen badu".

Antonio Basagoiti
2006-09-17

KIROLA

- 24. Mikel Deuna txapelketako finala Ermuak eta Aloñak jokatu dute | 15
- Bergara Hiriko errebantxak berritutako pilotalekuan jokatu ziren | 18



Markel Irizar
txirrindulariarekin
Espainiako Vueltari
buruz hitz egin
dugu | 16

FUTBOLEKO PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

MONDRA

1-0

UDA

Mondra | Ander, Amu, Loiti, Mercader, Lazpiur, Gotzon (Ruben, 62. min.), Zubikarai, Lopez, Muxi, Arkaitz (Losada, 55. min.) eta Ekain (Aranbarri, 51. min.).

UDA | Gaizka, Gorka, Joseba, Ibon, Arenatza, Ruben, Iñaki (Eriko, 45. min.), Haritz (Kepa, 72. min.), Arriaga (Bellido, 45. min.), garai eta Espinosa (Sanchez, 28. min.) (Imanol, 70. min.).

Golak: 1-0: Zubikarai (58. minutuan).

Epailea | Etxarri jauna. Txartel asko aterra zituen. Lau jokalarik egotzi zituen.

Bestelakoak | Ikusle asko hurbildu zen Atxabalpe futbol zelaira preferente mailako lehen derbia ikustera.

Bikain

Ikusleak

Preferente mailako lehen derbia izanik ikusle asko bildu zen Atxabalpen. Aretxabaletako zale asko hurbildu zen bere taldearen partidua ikustera

Kaskar

Epailearen lana

Partidu amaieran txistuak entzun zituen Etxarri jaunak. Bere erabakiekin bailarako derbiaren joko erabat baldintzatu zuen. Txartel hori asko erakutsi zituen. Lau jokalarik egotzi zituen

Esandakoak

“Epaileak nahastu du partidua bere erabakiekin. Behar bada emaitzan ez du eraginik izan. Baina jokoan bai. Lehia oso arraroa izan da”.

“Kemena emango digu gaurko garaipenak. Zapatuan berriro etxean jokatu dugu. Ea hiru puntuak lortzen ditugun”.

ANDER RUIZ DE AZUA |
MONDRAKO JOKALARIA



JOSETXO ARANTZABAL

Igor Arenatza baloia jokatzeko ahaleginean, Mondra eta UDAko bi jokalarik begira dituela.

FUTBOLA | PREFERENTE MAILAKO LEHEN DERBIA JOKATU ZEN ARRASATEN

Mondra izan zen nagusi, baina epailea protagonista

Txartel asko erakutsi zituen Etxarri jaunak, eta txartel gorria erakutsita lau jokalarik egotzi zituen: bi UDAkoak eta beste biak, Mondrakoak

Mireia Bikuña

Derbiak partidu bereziak izan ohi dira. Baita atzo Atxabalpen Mondrak eta UDAk jokatuak ere. Berezia eta bitxia. Batez ere epailea izan zelako protagonista. Etxarri jaunaren lanak, behar bada, ez zuen emaitzan eraginik izan, baina bai jokoan: derbia 19 jokalarik amaitu zuten.

TXARTEL HORIAK

Hasierako minututik nahastu zitzaion partidua Etxarri jauna-

ri; edozein sarrera txartel horiarekin zigortzen zuen. Hala, partiduan zehar egotzi zituen lau jokalarietatik hiruk aldagelarako bidea lehen zatian hartu zuten. 22. minutuan UDAko Gorka, 30. minutuan Mondrako Lopez eta 42. minutuan UDAko Arkaitz egotzi zituen, hurrenez hurren.

Bada, epailearen lanak erabat baldintzatu zuen bi taldeen jokoak. Txartel festaz gain, futbol arauak oso zorrotz aplikatu zituen. Jarrera hark erabat nahastu zituen jokalarik eta

entrenatzaileak. Are gehiago, partidua amaitzeko zegoela, berotze ariketak egiten ari zen jokalarik bati txartel gorria erakutsi zion: Mondrako Argiderek ez zuen zelaia zapaldu.

Epaileak zelaiko hiru jokalarik egotzi zituen: UDAko bi eta Mondrako bat

Berotze ariketak egiten ari zela, Mondrako jokalarik bati txartel gorria erakutsi zion

HARRIDURA NAGUSI

Atxabalpen bildutako zaleek epailearen lana gertutik jarraitzen zuten bitartean, zelaian gertatzen ziren jokalariek partidua irabazteko ahalegina egin zuten. Lehenengo zatian bi taldeak saiatu arren, aukera gutxi egon zen.

Eta bigarren zatian egin zuen Mondrak garaipenaren gola. 58. minutuan Rubenek eskuinetik baloia erdiratu zuen eta Zubikarai, buruz, gola egin zuen. Hala, markagailua alde zuela Gordobilen taldea partidua menderatzen saiatu zen.

UDAK berdinketa nahi zuen eta aukerak izan zituen: 80. minutuan Mondrako atezainak gaizki urrundutako baloia ez zuten errematatu. Azkeneko minutuetan Arenatzak bi aukera izan zituen berdinketa lortzeko.

Preferente maila



ARTXIBOA

Iban Astolak sartutako golak ezer gutxirako balio izan zuen Txerloia futbol zelaian.

Azkoitiarren erasoak min handia egin zion Aloñari

ANAITASUNA

3-1

ALOÑA MENDI

Anaitasuna | Aranbarri, Azkoiti, Juaristi, Potxa, Juaristim Artetxe, Etxeberria (Lizarazu, 73. min.), Irazabalbeitia, Aranburu (Benitez, 82. min.), Nuñez (Aranbarri, 58. min.) eta Bastida,

Aloña Mendi | Elgarresta (Idigoras, 87. min.), Losada, Elgarresta, Idigoras (Garmendia, 73. min.), Garai, Bazan (Lopez, 58. min.), Barrena, Aramendi (Moiua, 69. min.), Astola, Astigarraga (Arregi, 73. min.) eta Olalde.

Epaila: Javier Ezkurdia jauna. Jon Cuadrado eta Eneko Sese izan zituen laguntzaile lanetan.

Arantzazu Ezkibel

Txapelketari neurria hartzea falta zaio Aloñari aurten. Orain arte jokaturako bi partiduetan ez du puntu bakarra atera. Zapatuan, 3-1 galdu zuten Orueta mutilek Azkoitiko Txerloia futbol zelaian.

Partidua polita izan zen lehenengo zatian. Bi taldeak gogotsu zelairatu ziren; erritmo biziarekin eta joko ona eginda.

ATZEALDEAN SARTUTA

Baina bigarren zatian guztiz aldatu ziren gauzak. Astolak 45. minutuan sartutako golarekin eman zitzaion hasiera bigarren zatia. Hasieratik, etxeko jokalariek estutzen hasi ziren. Gol aukerak

bata bestearen atzetik sortu zituzten azkoitiarren. Hala, Orueta eskema aldaketa egitea erabaki zuen: bost jokalaririk sartu zituen atzealdean. Erabaki hori, baina, kalterako izan zen. Aloñako jokalariek atzean geratu ziren, area-tik ezin aterata.

ALDARATZEETAN GAIZKI

Atzealdean sartuta, aukera gutxi sortzen ari zen Aloña. Gainera, aldaratze guztietan, etxeko jokalariek ari ziren nagusitzen, eta Aloñaren atea arriskuan jarri. Hala, minutu gutxian, bi gol jarraian sartu zituzten azkoitiarren. Hirugarrena zelai erditik sartu zuten, partidua erabakita utzita. Datorren astean Touringen bisita jasoko dute, Azkoagainen.

1. erregionala

Bergarrek itxura ona eman zuten Zumaian

ZUMAIKO

0-0

BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Etxekoek baino aukera gehiago izan zituzten mahoneroek norgehiagoka irabazteko, baina azkenean puntu bakarrarekin etorri ziren Zumaikat estreinako partiduan.

Errespetu handiko partidua izan zen zapatukoa. Bi taldeak berdinketari eustera atera ziren, puntu bakarra nahikoa zutela zirudien. "Itxuraz gu baino talde indartsuagoa da Zumaiko, baina zapatuan guk sortu genituen aukerak", esan zigun Bergarako entrenatzaileak.

TALDE BERRIA

Izan ere, Bergarak aldaketa asko izan ditu taldean. Horrela, zapatuan gazte mailako lau jokalarirekin jokatu zuten partidua. Mahoneroek datorren astean Pedrusco hartuko dute, etxean.

Emaizak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

Pasaia-Hernani	0-3
Martutene-Hondarribia	1-2
Urola-Ordizia	1-2
Mutriku-Aurrera	1-1
Touring-Zestoa	3-0
Anaitasuna-Aloña Mendi	3-1
Berio-Zarautz	2-3
Idiazabal-Trintxerpe	1-0
Mondra-UDA	1-0

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.Zarautz	06	2	2	0	0	5	2
2.Ordizia	06	2	2	0	0	4	1
3.Touring	04	2	1	0	1	5	2
4.Anaitasuna	04	2	1	0	1	4	2
5.Urola	03	2	1	1	0	2	2
6.Hondarribia	03	2	1	1	0	2	2
7.Martutene	03	2	1	1	0	3	3
8.Idiazabal	03	2	1	1	0	1	2
9.Hernani	03	2	1	1	0	4	2
10.Trinxerpe	03	2	1	1	0	2	1
11.Berio	03	2	1	1	0	4	3
12.Mondra	03	2	1	1	0	1	2
13.Pasaia	03	2	1	1	0	1	3
14.Aurrera	02	2	0	0	2	3	3
15.Mutriku	01	2	0	1	1	1	3
16.Zestoa	01	2	0	1	1	1	4
17.UDA	00	2	0	2	0	0	2
18.Aloña Mendi	00	2	0	2	0	1	5

HURRENGOAK

UDA-Hernani
Hondarribia-Pasaia
Ordizia-Martutene
Aurrera-Urola
Zestoa-Mutriku
Aloña Mendi-Touring
Zarautz-Anaitasuna
Trinxerpe-Berio
Mondra-Idiazabal

2. erregionala

Gol festa Estala futbol zelaian txapelketa hasteko

ANTZUOLA

4-0

EIBARTARRAK

Mireia Bikuña

Modu bikainean hasi zuen 2. erregional mailako denboraldia Antzuola futbol taldeak. Andoni Azkargortak zuzentzen duen taldeak lau gol sartu zituzten Eibar-

tarrak taldeari Estala futbol zelaian jokaturako lehian. Mereritako garaipena lortu zuten antzuolarrek.

AUKERA ASKO

Lehen zatian gol aukera asko izan zituen Antzuolak; haieztatik, hiru errematek zutoina jo zuten. Antzuolak gol bakarra egin zuen atsedenaren aurretik. Aitor Berraondo izan zen golegilea.

Bigarren zatian, berriz, norgehiagoka parekatu egin zen. Eibartarrak taldea berdinketaren bila atera zen. Baina etxeko

taldea izan zen berriz gola egin zuena. Aitor Godoik lortu zuen bigarrena. Bada, markagailuko errenta handitu ondoren, Antzuola izan zen partidua menderatu zuena. Hala, beste bi gol egin zituen: hirugarrena Josu Segurrolak egin zuen eta laugarrena, Aitor Berraondok.

UDA-ANTZUOLA

Zapatuko garaipen zabalak sailkapeneko lehen postua eman dio Antzuolari.

Asteburuan derbia jokatu du UDAREN aurka Aretxabaletan.

2. erregionala

Elgetak indartsu hasi du denboraldi berria

ZESTOA

1-2

ELGETA

Mireia Bikuña

Bigarren erregional mailako liga etxetik kanpo irabazten hasi du Elgetak. Hain zuzen ere, Zestoa-ri 1-2 irabazi zion zapatuan.

ELGETA HOBETO

Partidu osoan Elgetak joko hobea egin zuen. Hala, aukera garbiak

sortu zituen lehenengo gola egin arte. 15. minutuan lortu zuen Ibai Igartzak. Gola egin ondoren, Elgetak lerroak atzeratu zituen eta Zestoa berdinketaren gola lortu zuen atsedenaren aurretik.

Bigarren zatian, berriz, Elgetak hartu zuen partiduen kontrola. Mikel Salegik bigarren gola egin zuen 65. minutuan; eta markagailua alde zuela, Elgetak berriz atzeratu zituen lerroak.

Hala, Zestoa aurrera egin zuen berdinketa lortzeko asmoarekin, baina ez zuen gol aukerarik izan.

Asteburuan Elgetak Mondraren aurka jokatu du.

Txirrindularitza



ARANTZAZU EZKIBEL

Irabazlea saria jasotzen Matxiategiko helmugan.

Ihesaldiek bizkortu egin zuten lasterketa

Seguros Bilbao taldeko Ruben Palacios gailendu zen Bergarako 41. Martin Deuna sarian

Arantzasu Ezkibel

Uste baino 20 minutu lehenago heldu zen lasterketako irabazlea Matxiategi kaleko helmugara. Lasterketa zoroa izan zen atzokoa, ihesaldi ahalegin askokoa. Azkenean, Seguros Bilbao taldeko Ruben Palacios gailendu zen, 2:22:12ko denbora eginda.

IHESALDI AHALEGINAK

Goizeko 10etan eman zitzaion hasiera lasterketari. Bergararik Osintxura abiatu ziren txi-

rrindulariak. Han, buelta eman eta Elorregirantz hartu zuten.

Hasierako kilometroetan, ihesaldi ahaleginak egon ziren. Hala ere, ihesaldiok ez ziren onak izan eta bertan behera geratu ziren.

Seguros Bilbao taldeak lasterketa kontrolpean eraman nahi izan zuen. Horretarako, txirrindulari guztiak tropelaren aurrealdean jarri ziren, ihesaldiak indargabetzeko. "Lasterketako lehenengo zatian, ordekan, tropelaren kontrola

hartu nahi izan dugu. Gero, Asentzioko gainean, ihesaldia egin eta mendiko saria irabazi ahal izateko", adierazi zion Ruben Palacios Bergarako lasterketako irabazleak.

HELMUGARA BAKARRIK

Bilboko taldearen estrategiak bere fruitua eman zuen. Asentzio gainean Beñat Intxausti nagusitu zen, eta mendiko saria eskuratu.

Baina Intxaustik ez zuen askorik irauan bakarrik. Azken kilometroetan, Elgetatik Bergarara bidean, Ruben Palacios ihes egin zuen, eta azken hiru kilometroak bakarrik egin zituen. Helmugan, zortzi segundoko aldea atera zion bigarrenari.

• **SARITUAK**



RUBEN PALACIOS | IRABAZLEA

Ruben Palacios bi sari jaso zituen atzo: irabazlearena eta Lehendakari sariko maillota. "Lasterketa gogorra izan da. Tropelaren kontrola eramatan ahalegindu gara eta azken hiru kilometroetan ihes egin ahal izan dut", adierazi zion.



GURUTZ LARREA | LEHENENGO ANTZUOLARRA

"Bizkor joan da lasterketa. Hasieratik ihesaldi ahaleginak egon dira eta horrek zoratu egin du lasterketa", adierazi zion Antzuolako txirrindulariak. Matxiategi kaleko podiumean, herriko lehenengoaren saria jaso zuen Gurutzek.

Sailkapena

LEHENENGOAK

1. Ruben Palacios (2:22:12)
2. Delio Fernandez (2:22:20)
3. Javier Iriarte (2:22:26)
4. Igor Romero (2:22:26)
5. Beñat Intxausti (2:22:28)
6. Adrian Arregi (2:23:22)
7. Erlantz Etxeberria (2:23:22)
8. Joseba Larralde (2:23:22)
9. Javi Aramendia (2:23:22)
10. Unai Marin (2:23:29)
11. Hodei Landa (2:23:29)
12. Victor de La Parte (2:23:29)
13. Julen Ramos (2:23:29)
14. Beñat Soto (2:23:29)
15. Gurutz Larrea (2:24:16)
16. Haritz Arberas (2:24:16)
17. Jose Ignacio Blanco (2:24:47)
18. Mikel Filgueira (2:24:47)
19. David Gutierrez (2:24:47)
20. Xabier Gallastegi (2:24:47)
21. Ander Garmendia (2:24:47)
22. Joseba Iciar (2:24:47)
23. Eddy Perez (2:24:47)
24. Xabier Zabalo (2:24:47)
25. Iban Leanizbarru (2:24:47)
26. Ignacio Guerra (2:25:26)
27. Iñaki Gonzalez (2:25:26)
28. Ruben Caseny (2:25:26)
29. Hilario Cordero (2:25:26)
30. Oxel Leunda (2:25:26)

TALDEKA

1. Seguros Bilbao (07:07:06)
2. Caja Rural (07:09:04)
3. Ibaigane Opel (07:11:14)
4. Debarrena (07:12:39)
5. Azpiru Inmobiliaria (07:13:50)
6. Suminan Uni2 (07:15:10)
7. Bidelan Kiroldgi (07:19:10)
8. Belca (07:19:59)
9. Bruesa-Policin, Laguntasuna (07:20:46)

MENDIKO SARIA

1. Beñat Intxausti
2. Delio Fernandez
3. Ruben Palacios

Mendia

Giro onean ospatu zuten mendizaleek Besaideko oroitzapen eguna

Asteleheneko Goienkaria

Lagun talde polita elkartu zen domekan Besaideko gainean, mendian hildako lagunak omentzeko. Atzokoa 51. Besaide eguna izan zen eta Elorrioko Erdella mendiko taldeari egokitu zitzaion jaia antolatzea.

ADARRA ETA TXALAPARTA

Arrasate, Elorrio eta Aramaioetik joandako mendizaleek 11etan izan zuten meza Besaide gainean. Ondoren, dantzariak eta tri-

kitilariak aritu ziren jaia girotzen. Aurten, berrikuntza moduan, mendi jokoak izan dituzte; horiek mendiko materiala erabiliz egiten diren jokoak dira, herri kirolen antzekoak.

"Txalaparta eta adarra jo dugu, mendizaleak igotzen ari ziren bitartean", esan zion Maitte Arginzonizek, Erdella taldeko lehendakariak. "Beste urte batzuetan baino jende gutxiago etorri da. Hala ere, eguraldia lagun, giroa aparta izan da", gaineratu zion Arginzonizek.



BESAIDE MENDI ELKARTEA

Atzo Besaiden elkartu ziren lagunek mendian hildakoak omendu zituzten.

• 24. MIKEL DEUNA TXAPELKETA, OÑATIN

Ermuaren aurka etxeko taldeak jokatuko du nesken Mikel Deuna txapelketako finala

Txapelketak azken orduko aldaketa izan zuen: seniorrek jokatu beharrean gazteek jokatu zuten

Arantzazu Ezkibel

Elgoibar eta Askartza taldeen arteko lehiak irabazita, Ermuak eta Aloñak eskuratu dute gazte mailako Mikel Deuna sariko finala jokatzeko eskubidea.

Norgehiagokak zapatu arratsaldean izan ziren. Lehenengo, Ermuko taldea eta Elgoibarko taldea aritu ziren nor baino nor gehiago. Bizkaiko taldeak ez zuten arazorik izan Gipuzkoako mendean hartzeko: emaitza 14-24 izan zen.

INDAR TXIKIKO TALDEA

Hasiera-hasieratik aurretik jarri ziren Ermuko neskek. Ezer gutxi egin gabe, 2-11 ziren aurretik 20. minuturako. Izan ere, Elgoibarrak talde ahula kantxaratu zuen. Indar txikiko taldea izan zen gipuzkoarra, eta erasoan

huts asko egin zituen. Atsedenera 6-12 aurretik joan ziren Ermuko neskek.

Eta bigarren zatian gauzek berdin jarraitu zuten. Elgoibarrak huts asko egin zituen, batez ere baloi luzeak ematerakoan. Kontraerasoko jokaldietan, lasaitasuna falta izan zitzaizen. Aukera asko galdu zituzten azkarregi ibiltzeagatik.

Ermuak, berriz, defentsa sendoa erakutsi zuen. Ondo aritu ziren atzealdean eta erasora ateratzeko orduan ez zuten zailtasunik izan.

ETXEKOAK ERE FINALERA

Aloñak ere finalerako txartela eskuratu zuen, Askartzari zailtasunik gabe irabazita.

Partidua lasaia izan zen. Denbora guztian, etxeokak markagailuan aurretik izan ziren. "Norgehiagoka mendean izan dugu. Defentsan ondo aritu gara eta



JOSETXO ARANTZABAL

Ermuak erasoan jokaldi politak sortu zituen.

jokalariek egin duten lana gustatu egin zait", esan zigun Manuk, Aloñako entrenatzaileak, partidua amaieran.

Izan ere, zapatuko partidua probak egiteko balio izan zuen. Jokalari berriak ditu Aloñak; batzuk kadete mailatik igotakoak eta beste bi Bergararik eto-

rritakoak: "Lagunarteko partidua probak egiteko aproposak dira. Jokalariak nola erantzun go duen jakiteko balio du", esan zigun Manuk.

FINAL GOGORRA

Datorren domekan, beraz, Aloñak eta Ermuak finala jokatu-

dute. Zapatuan ikusitakoaren arabera, partidua polita izango da. Bi taldeek defentsa ona dute; beraz, gol gutxiko partidua izango dela esan dezakegu.

Gazte mailako nesken partiduen aurretik, Aloñako eta Bergarako gazte mailako mutilek norgehiagoka izango dute.

Finala gogorra izango da, bi taldeek defentsa ona dutelako; beraz, lehiatsua izango da

• LAGUNARTEKO PARTIDUAK

Gazte eta senior mailako taldeek galdu egin zuten zapatuan

Bergarako eskubaloiko bi taldeek Zarautzen aurka jokatu zuten

Mireia Bikuña

Liga hasi aurreko prestaketan, lagunarteko partidua bikoitza jokatu zuten zapatuan Bergarak eta Zarautzek. Gazte eta senior mailako neurketak jokatu ziren. Bada, bi norgehiagoketan Bergarako taldeek galdu egin zuten.

GAZTE MAILAKO TALDEA

Lehenengo partiduan gazte mailako taldeek neurtu zituzten indarrak. Bergarako entrenatzaile Lander Juaristik defentsa berria probatu zuen zapatuko parti-

duan: "3-2-1eko defentsarekin nola moldatzen ginen ikusi nahi izan dut. Egia esan, oraindik oso motel gaude", azaldu zigun partidua amaieran.

Gazte mailako partidua oso parekatua izan zen. Lehenengo zatian markagailuak gorabehera asko izan zituen. Eta Zarautz iritsi zen atsedenera abantailarekin: 9-11.

Bigarren zatian, berriz, Bergarari kosta egin zitzaion lehen gola egitea. Hala, 9. minutura arte ez zuten golik egin etxeko taldeak. Haren ondoren lau gol egin zituen jarraian Bergarak. Baina Zarautzek agindu zuen beti. Errenta gehienez ere hiru golekoa izan zen Zarautzarren alde. Amaieran, lehen zatian beste gol eginda, Zarautzek irabazi zuen: 18-22.

SENIORRAK, ONDO

Senior mailako lehia ere parekatua izan zen, batez ere bigarren



JOSETXO ARANTZABAL

Gazte mailako taldeek defentsa berria probatu zuen zapatuko lagunarteko partiduan.

zatian. Atsedenera 10-18 galtzen iritsi ziren bergararrak. Bigarren zatian hasieran, berriz, bost gol jarraian egin zituzten; eta aldea estutu egin zen: 15-18.

Lehen ordu laurdenean, Bergarak zortzi gol egin zituen eta Zarautzek lau besterik ez. Handik aurrera markagailuan bi gole-

Lagunarteko bi lehiak oso parekatuak izan ziren; bergararrak biak galdu zituzten

ko errenta egon zen gehienez ere Zarautzen alde. Etxeko taldeak berdinketa lortzeko aukera ere izan zuen. 28. minutuan 25-26 zen nagusi Zarautz, baina Bergarak ez zuten erasoan golik egin.

Jarraian, Zarautzek azken gola egin zuen eta markagailuak azken emaitza jaso zuen: 25-27

Iruditlan



JOSETXO ARANTZABAL

Globo aerostatikoa. San Martin jaien barruan, ekitaldi bitxia egin zuten atzo Seminarioko jolas lekuan: globo aerostatikoan bidaiatzeko aukera eman zieten hala nahi izan zuten guztiei.



JOSETXO ARANTZABAL

Xakea. Irungo Bataia taldeak irabazi zuen Bergara Hiria xake txapelketa, 41 punturekin. Bergarako taldeak, aldiz, 7,5 puntu lortu zituen eta azkeneko tokian amaitu zuen txapelketa. 16 taldek parte hartu zuten. Bestalde, 100 jokalarik parte hartu zuten Iralako gimnasioan jokaturako nazioarteko txapelketan.



JOSETXO ARANTZABAL

Spinninga eta aerobika. Ate irekien jardunaldiak izan ziren zapatuan eta domekan, Agorrosin ekintza-gunea inaugurazioa zela-eta. Ikasturtean zehar kiroldegian eskainiko dituzten ikastaroetan parte hartzeko aukera egon zen zapatuan; spinning eta aerobik ikastaroetan, besteak beste. Bada, argazkietan ikusten den moduan, herritar gutxi izan ziren bi ikastaro haietan parte hartu zutenak. Horren harira, gaurtik aurrera Agorrosinek goizeko 7etan zabalduko ditu ateak erabiltzaileendako.

DANBAKA))))))

Debagoieneko II. Musika Lehiaketa

**PARTE
HARTU
NAHI?**

Izena emateko azken eguna: irailak 19

◆
INFORMAZIO GUZTIA:

www.danbaka.com

Tenisa



JOSETXO ARANTZABAL

Josu Agirrek ezin izan zuen Moreno gaintitu txapelketako lehenengo jardunaldian.

Euripean hasi zuten tenis txapelketa, zapatuan

Txapelketako partidu guztiak Zubikoa kiroldegiko teniseko lehenengo eta bigarren pistetan jokatu dira

Arantzazu Ezkibel

Hasiera gorabeheratsua izan du Oñatiko Mikel Deuna tenis txapelketak: lehenengo, jende faltagatik, astebete atzeratu behar izan zuten txapelketa eta orain, euriagatik hainbat partidu bertan behera geratu dira.

PARTIDU BAKARRA

Txapelketa Oñatiko jaien barruan antolatzen dute. Estreina jardunaldian, zapatuan, jokatu behar zituzten lau partiduetatik bakarra jokatu zuten: Jose Luis Morenoren eta Josu

Agirrerren artekoa, hain zuzen. Moreno erraz nagusitu zitzaion Agirreri (6-1, 6-2).

Txapelketako partiduak hiru setera jokatu dira, eta partidu guztiak Oñatiko Zubikoa kiroldegian izango dira, teniseko lehenengo eta bigarren pistetan.

Hala, lehenengo jardunaldian euriagatik atzeratutako partiduak noiz jokatu diren erabakitzeko dago oraindik.

BIGARREN JARDUNALDIA

Datorren astean bigarren jardunaldiko partiduak jokatu dira. Goizeko 10etan, Juan Luis Etxa-

niz Josu Agirrerren aurka eta Jose Luis Moreno Jesus Anduagaren aurka arituko dira. Eta bi partidu horien ostean Jesus Kortabarría Jaime Zarautzen aurka eta Iñigo Ziarsolo Jesus Azkargortaren aurka arituko dira.

Domekan, berriz, Pedro Anduaga eta Jon Asensio nor baino nor gehiago arituko dira.

FINALA URRIAN

Txapelketako finala urriaren 8an jokatzeko aurreikusita dago. Horretarako, baina, atzeratutako partidu guztiak astean zehar jokatu beharko dira.

Artzain txakurrak



GOIENKARIA

Linda txakurrarekin aritu zen Plazaola.

Oñatiko artzain txapelketatik kanpo geratu da Plazaola

Arantzazu Ezkibel

Zortzigarren postuan amaitu zuen Euskal Herriko artzain txapelketa Jesus Mari Plazaola arrasatearrak atzo. Eta postu horrekin, datorren astean Oñatin jokatu den txapelketarako txartel barik geratu da Plazaola.

Zaldibarren jokatu zen txapelketan hiru ariketa egin behar izan zituzten parte-hartzaileek; hala, bigarren arike-

ta egiteko zazpi artzain bakarrik sailkatu ziren, eta Plazaola zortzigarrena izan zen.

XABIER URIEN GARAILE

Euskal Herriko txapelketa Xabier Urienek irabazi zuen, Txiki txakurrarekin. Garaipen horrekin, Oñatin jokatu den txapelketarako txartela eskuratu zuen Urienek. Zaldibarren, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko txapeldu-nordeak aritu ziren.

Labur

Labegaraietan Bruesa GBC eta Ukrainako Kiev taldeak izango dira

Domekan, hilaren 24an, Bruesa lagun arteko partidua jokatu du Ukrainako Kieven aurka, Bergaran. Eguerdian izango da partidua, Bergarako Labegaraieta kiroldegian. Saskibaloia bultzada eman guran antolatu du Bergara Saskibalo Elkarteak partidu ezin interesgarriagoa. Puntako bi talde izango dira gurean.

Pilota

Bergara Hiriko errebantxa partiduak berritutako udal frontoian jokatu ziren

Udal Pilotalekuan hainbat eraberritze lan egin dituzte

Mireia Bikuña

Urtero legez, San Martin jaietan Bergara Hiriko finalerako sailkatu ziren pilotariak errebantxa partiduak jokatu zituzten egubakoitzean. Hala, azken hilabeteotan eraberritze lanak egiteko itxita egon ondoren, Udal Pilo-

taletan jokatu ziren errebantxa partiduak. Baina finala jokatu zuten pilotari guztiak ez zuten errebantxa jokatu: senior mailan, Aio eta Apraizek ez zuten jokatu eta haien ordez Mugurutza eta Azpiaz aritu ziren.

Renobales eta Gutierrezek irabazi zuten Bergara Hiria txapelketa. Baina errebantxako partiduan ez zuten erakutsi daukaten maila. Hala, Mugurutzak eta Azpiaz irabazi zuten, 22-16.

LEHENENGO PARTIDUA, BUKATU BARIK

22 urte azpiko kategorian, berriz, Iraolak eta Etxeberriak Larra-

ñagatarren aurka jokatu zuten. Bergara Hiriko finalean, Iraolak eta Etxeberriak irabazi zuten, 22-20. Bada, Larrañagatarrek errebantxa hartzeko aukera zuten barikuan. Eta lan hartan ziharduten, Iraolak min hartu zuenean. Orkatila bihurritu eta min hartuta, partidua bertan behera geratu zen.

FRONTOIA, BERRITUTA

Ekaina ezker itxita egon ostean, barikuko partiduekin zabaldu zuten. Sabaia, teilatua eta aldagelak berritu dituzte eta aldagelatan frontoi txikia jarri dute berotzeko. Jarlekuak ere berriak dira.



JOSETXO ARANTZABAL

22 urte azpiko eta senior mailetako errebantxak jokatu ziren.

Markel Irizarrek atzo bukatu zuen Madrilen 61. Espainiako Itzulia. Oñatiarrak bigarren Vuelta izan du aurtengoa. Lan txukuna egin duela esan digu, taldeari ahal bezala

laguntzen eta ihesaldietan parte hartzen. Datorren urteari begira, taldean jarraituko du. Ondoan Jon Odriozola herrikidea izan dezake entrenatzaile lanetan. Ilusioz

beterik aurkitu dugu Irizar. Ez zaio motiborik falta; kirol mailan denboraldi ona egin du eta maila pertsonalean, berriz, aita izatekoa da Oñatiko txirrindularia.

MARKEL IRIZAR | EUSKALTEL-EUSKADIKO TXIRRINDULARIA

"Lagungarria izango litzateke Odriozola entrenatzaile berria izatea"

Arantzazu Ezkibel

Nola baloratuko zenuke bukatu berri den Espainiako Itzulia?

Lehenengo astean, hegoaldean, izugarriko beroak izan genituen; Kordobako etapan, esaterako, 46 gradu izan genituen. Gero Asturias aldera igo ginen, baina azkeneko astean berriro ere behera jaitsi ginen. Egia esatearren, nahiko itzuli arraroa izan da.

Zein izan da itzuli honetako une gogorrena Markelentzat?

Fisikoki ondo aritu naiz, ez dut behaldirik izan, eta horrek asko laguntzen du burua argi mantentzeko. Momentu txarrak izan ditut, baina ilusio eta gogo handiarekin aritu naizenez, ezin esan dezaket gaizki pasa dudarik.

Itzuli hasieran, kontratuaren kontuarekin, nahiko burukomin izan nuen. Jende guztia galdezka izan nuen eta presiopean sentitu nuen nire burua. Igor Gonzalez de Galdeano etorri zen arte. Harekin hitz egin ondoren lasaia go geratu nintzen.

Une goxoena zein izan den badakigu...

Bai, guk uste baino oihartzun handiagoa izan zuen bitxikeriak. Etapa luzeena zen, eta denbora guztian buruari bueltaka egon behar nuenez, Oskar Kintanak esan zidan (taldeko masajista) poltsaren kolorearen bidez emango zidala jakitera emaztea eta biok edukitzeak garen haurraren sexua. Taldekide guztiak ondoan izan nituen une hartan, eta oso polita izan zen.

Euskaltelek aldaketak egingo ditu denboraldi berrirako. Nola ikusten dituzu aldaketa horiek?

Julian Gorospereen kasua gogorra egin zaigu. Espainiako Itzulia etorri ere ez da egin, eta egoera arraroa izan da. Datorren urteari begira txirrindulari batzuek taldea utziko dute, eta pena ematen du orain arte taldekide izan direnekin ez jarraitzeak. Etorriko diren txirrindulari berriak

lagunak ditut; Mikel Astarloza, esaterako. Hala ere, taldea utziko duten lagunengatik penatuta egoatea normala dela uste dut.

Aldaketa handiena zuzendaritzan gertatuko da: Jon Odriozola izango duzue entrenatzaile berria.

Niretzat oso polita izango litzateke Jon Euskaltelera etortzea. Biak oñatiarrak gara, eza-gunak, eta horrek asko lagunduko digu. Gainera, Odriozola beti ondoan izan dut. Askoi saiatu da niri erakusten.

Gustura zaudete taldeak Espainiako Itzulian egin duen lanarekin?

Gure asmoa sailkapen orokorrean aurrean agotea zen. Lehenengo astean egindako lana ikusi eta gero, sailkapen orokorrak ihes egin zigula ikusirik, estrategia aldatu behar izan genuen. Hainbat etapatan ihesaldi guztiak harrapatzen saiatu gara. Azkenean, balantzea ona izan da: bi etapa irabazi ditugu eta lehenengo hamarren artean taldekide bat dugu. Eta taldekako sailkapenean laugarren postua lortu dugu.

Etapasi hasieratik baduzu egunero errepikatzen duzun ohiturarik?

Bai. Mayok beti esaten du: "Hasi da Markel betiko errituak egiten". Goizero, esparatrapu batean, etapako puntu kilometrikoak jartzen ditut, gero bizikletako



Irizarrek Zuricheko lasterketan bukatu du aurtengo denboraldia.

eskulekuan jartzeko. Etapa hasieran firma bota, entzungailua jarri, hanketan krema eman, kafea hartu eta kaskoa jarri. Horiek beti ordena berean egiten ditut. Zerbakia aurreko gauen jartzen dut, beti. Guztia gertatuta uzten dut hurrengo egunerako. Itzuliak irauten duen 21 egunetan modu berean egiten ditut gauzak.

Eta irteera puntura zoazenean zertan pentsatzen duzu?

Karrera nola joango den bai no gehiago, familiakoekin pen-

tsatzen dut. Eta orain, umetxo bat izango dudanez, harengan ere pentsatzen dut. Emango diodan etorkizunaz batez ere. Orain, ez dut niregatik edo etxekoengatik bakarrik sufritzen, harengan pentsatzen dut eta guztia eman behar dudala pentsatzen dut.

Horren kontura, bitxikeria bezala, Mikel Astarlozak zera esan zidan portu bat igotzen ari ginela: "Ai, Xabat, zure aitak zerbait sufritu behar duen oraindik". Polita izan zen.

Tropelean zoatzela zertaz hitz egiten duzue? Badago lasaitasunerako tarterik?

Etapasi hasieran indartsu ateratzen gara, ihesaldia egon arte. Gero, abiadura moteldu egiten da eta orduan geratu egiten gara, pixa egiteko. Kilometro batzuetan, lasai joaten gara eta momentu horiek berba egiteko aprobetxatzen ditugu. Beti dago umore ona duen norbait, eta tontakeriaren bat edo beste egiten dugu.

Gaizki doanari laguntzeko ere beti egoten gara prest. Uste dut txirrindularitza oso solidarioa dela alde horretatik. Zein da profesional mailan zaudenetik ikasi duzun gauzarik onena?

Bada, nork bere mugak zeintzuk diren jakin behar du, eta muga horiekin gauzak ondo egiten jakin. Denak ezin dira izan irabazleak; ezta hiru itzuli handietan zerbait handia egiteko gai izan ere. Nork bere lekua zein den jakin behar du. Hori ikastea kostatzen da, gaztea zarenean ilusioz eta zerbait handia egiteko gogoarekin zaudelako. Baina behin hori ikasita, lanean jarraitu behar da, norberaren ametsak alde batera utzi gabe.

"Itzuli hasieran, kontratuaren kontuarekin nahiko burukomin izan nuen"

"Orain arte taldekide izan direnekin ez jarraitzeak pena ematen du"

"Etapasi hasieratik, egunero errepikatzen ditut ohiturak batzuk; erritualak da"

"Nork bere mugak zeintzuk diren jakin behar du, eta horien arabera jokatu"

LAN ESKAINTZA

Bergarako
Depor tabernan,
ZERBITZARIA
behar da.

Interesatuok deitu:
629 26 88 51
943 76 01 51

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Bizkaira da Bergarako San Martin jaien barruan jokaturako Ageriko 33. Margo Lehiaketa | 22
- Denondako moduko txotxongilo emanaldia egingo dute egubakoitzean Aramaion | 27

Aukeran dantza taldearen azken lana Elgetan ikusteko sarrerak salgai daude | 27

DELOREAN KONTZERTUAN



JOSETXO ARANTZABAL

Delorean talde zarauztarra zapatuan Bergarako Gaztetxean emandako kontzertuaren une baten.

TXAPA IRRATIAREN JAIA | GAZTETXEAN ANTOLATUTAKO GAUAN, BASQUE COUNTRY PHARAONS, DELOREAN ETA DJAK IZAN ZIREN GONBIDATUAK

Azken diskoa aurkeztu zuen Delorean taldeak Bergarako gaztetxean

'Into the plateau' da euren azken lana eta inoiz baino sakonago jotzen dute laugarren disko horretan; jarraitzaile asko dituztela argi utzi ziguten, Bergarako gaztetxea bete-bete egin zen eta

Goreti Elortza

San Martin jaietako egitarauaren barruan antolatu zuten Txapa Irratikoek gaztetxeko jaiak. 5 euro balio zuen sarrerak eta Iruñeko Basque Country Pharaons, Delorean zarauztarrak eta Bergarako DJ batzuek jardun zuten gaua giroten. Jaiak goizera arte irauan zuen.

23:30ak jota igo zen lehen taldea oholtzara, Basque Country Pharaons. Iruñeko taldeak gogo biziz hasi zuen gaua. Jende gehiago hurbildu zen Delorean taldearen emanaldira. Zarauzko taldeak ospe handia hartu du azkenaldian, egiten duten musika berezia dela-eta. Hasi eta berehala jarri zuten batutako jendea dantzan.

Ekhi Lopetegi (ahotsa eta baxua), Tomas Palomo (gitarra), Unai Lazkano (teklatura) eta Igor Escudero (bateria) dira taldeko kideak. *Into the plateau* izena du euren laugarren diskoak eta Bcore disketxearekin grabatu dute. Azken disko hori aurrekoak baino landuagoa eta helduagoa da, erritmo bereziki.

2000. urtean hasi zen taldea. Euren lehenengo intentzioa pop banda sortzea bazen ere, sintetizadoreen munduak euren estiloa aldatu zuen. Geroztik, lau disko atera dituzte, zein baino zein landuagoa. Ezagunak dira oso Deloreanekoak, Estatu mailan zein atzerrian, eta gero eta kontzertu gehiago ematen dituzte. Jendeak askotan hartzen die bes-

te talde batzuen antza; The Cure taldearena, esaterako.

Hala eta guztiz ere, musika estiloari dagokionez, nazkatu dira etiketak jartzeko dagoen

Delorean taldearen laugarren diskoa heldua eta landua da oso

Musika dantzagarririk izan zuen arrakasta handien zapatuan

moda horrekin, Escudero esan zigunez.

Eroso jardun zuten zapatuan oholtza gainean. Diskoa osatzen duten zortzi kantuak aurkeztu zituzten eta baita beste diskoetako batzuk jo ere.

Taldeko ahotsa berezia da oso. Urrutikoa eta sentsuala hitzkin definitua, ingelesez abesten dute Deloreanekoek. Euren gustuko musika egiten dute eta badi-rudi jendeak ere gustuko duela.

DJ FESTA GOIZALDERA ARTE Kontzertuak bukatuta, DJ festa jarraitu zuen goizaldera arte Bergarako gaztetxean. Herriko hainbat DJk jarri zuten musika eta jende asko hurbildu zen hara, erritmo asko dantzatzera.

DELOREAN KONTZERTUA

IGOR ESCUDERO | DELOREAN TALDEKO BATERIA

“Euskal Herria *Openmind* prozesua ari da bizi izaten, mugimendu gehiago sartu dira jokoan”

Goreti Elortza

Delorean taldeko teklatua dugu Unai Lazkano. Zarautarra da, beste taldekideak bezala. Harekin hitz egin dugu taldearen egoeraren inguruan. Eta hau esan digu...

Udazkenerako agendara begira, hurrengo hitzordua Berlinen, Popkommen. Enbaxadore lanetan ibiliko zarete. Bultzada polita aukeratuak izatea, ez?

Egia esan, orain dela 2 urte ere Popkommen jo genuen. Horregatik, pixka bat arraroa egin zaigu SGAEk berriro gu aukeratzea. Ea oraingoan aurrekoan baino ero-soago sentitzen garen... Duela bi urte guztiz lekuz kanpo sentitu ginen metal-hardcore talde artean jotzen! Hori bai, honekin ez dut esan nahi Marlangorekin gehiago identifikatzen garenik...

Diskoa udaberrian atara berri eta ordutik hona loreak besterik ez ditugu entzun. Nola hartzen duzue hau guztia?

Oso gustura gaude orain arte lortutako guztiarekin eta gainditutako muga guztiarekin. Guretzat nahi dugun musika egiten horrenbeste amets lortzea sekulakoa da. Hala ere, jendea ahaztu egiten zaio oso *underground* garelara oraindik eta Estatuan musika egiteaz bizi izatea ia ezinezkoa dela. Horre-

taz aparte, ongi dago prentsaren erantzuna... Hala ere, oso serio ezin direla hartu ikasten duzu, iritziak bakarrik dira-eta. Horrek ez du zure lana oztopatu edota aldatu behar.

Into the plateau-k soinu itzela dauka diskoan. Zuzenekoan zein duzue lehentasuna? Teknika, dantzaraztea, indarra...

Hiruren nahasketa dela lehentasuna esango nuke. Gainera, hirurak lotuta doaz. Ondo joz gero, indartsua izango da soinua; ekipo ona baldin badago, noski! Eta ondo jota eta indartsu, ezinezkoa da ez dantzatzea!

Diskoak, gainera, nazioarteko banaketa izan du (Alemanian, Frantzia, Japonian...). Zer-nolako erantzuna izan duzue hain leku ezberdinetan?

(Barre). Galdera hori gure buruari askotan egiten diogu, diskoetxeok ez digute-eta inoiz ezer esaten... Atera dugun konklusioa hau da: askorik ez dugula saltzen. Hala ere, Japonian 800 disko inguru saldu genituen aurreko lanarekin. Hori da atzerriko kontuez dakigun gauza bakarra.

Oraindik ere musika dantzarriak aurreiritziak gaintu behar ditu euskal eszenan? Nola ikusten dituzue gauzak etxean?

Pixkanaka Euskal Herria ari da *openmind* prozesua bizi izaten; beraz, denborak esango du euskal eszenan zer gertatuko den.

Mugimendu gehiago sartu dira jokoan. Herrialde guztietan bezala, modak izaten dira. Adibidez, hasieran, euskal rock erradikala genuen; gero, 80ko eta 90eko hamarkadetan, jende guztiak *makarrea* zuen gustuko. Su Ta Gar eta Etsaiak taldeen garai onenean; hamarkadaren erdialdean, jendeak gustua hartu zion *postrock* delakoari... Nork daki Euskal Herrian zein izango den hurrengo mugimendua?

Zuen eboluzioari begiratuta, garpena oso aberatsa izan da, nahiz eta une ezin hobean lortu duzuen danbatekoa ematea. Zenbat aldiz entzun behar izan duzue momentuko *hype* delakoaren kontu gogai-karri hori?

Lehen esan dudanez, prentsako jende askoren iritziak ez dira oso serio hartu behar. Askotan kritika bat irakurri eta kritikoari erraz nabari zaio ez duela diskoa entzun ere egin. Beraz, tipo horri ezin zaio ezer sinetsi, eta horrelakoak asko daude, batez ere Estatu mailan. *Hype* eta horrelako txorakeriak ez ditut gustuko. Gu kategoria horretan sartzea oso pentsamendu arraroa da. Hori esaten duen tipoak ez du zure ibilbidea jarraitu, momentuko soinuarekin lotu nahi zaitu, tendentzia baten barruan, produktu berri bat izango balitz bezala. Gu ez gara identifikatzen talde berri hauekin guztiarekin.

80ko musikaren susperraldia kasualitatea izan da, oraingo belaualdiaren erreferentzia da ala beharrezko berreskurapena? Zenbat zor zaio hamarkada hari?

80ko hamarkadaren kontua pixka bat pasatuta dago, gure ustez. Susperraldia orain dela lau urte edo izan zuen. Hala ere, orain dela urtebete inguru arte ez da masifikatu. Eta betikoa, masak garai hartako okerrena hartu du. Komertzialagoa egin eta produktu bilakatu du guztia, 80ko hamarkadaren inguruan oso inpresio txarra utzita. Hala ere, oso gauza interesgarriak egin ziren *new order*, *devo*, *human league* eta izen handiez aparte. Hamarkada handia izan zen.



JOSETXO ARANTZABAL

Igor Escudero, Delorean taldeko teklatua.

“Oso gustura gaude orain arte lortutakoarekin eta gaintu ditugun muga guztiarekin”

“Prensako jende askoren iritziak ez dira oso serio hartu behar, agian ez dute diskoa entzun”

“Etiketen kontuarekin nazkatuta gaude dagoeneko, batzuk barregarriak dira”

“Urte bukaeran lehen erreferentzia aterako dugu, Simple Social Graces etxearekin”

Bestalde, beti gabiltza kazetari eta diskoetxeekin etiketen bila, eta, egia esan, nahiko nazkatuta gaude dagoeneko kontu horrekin.

Zein da zuen motibazio nagusia?

Ia noraino iristen garen, abestiak egiterakoan nahiz bidaiatzen. Abestiak egitea da motibazio nagusia orain, beti aurrera egin behar da-eta. Musika komertziala egiten saiatzen baldin bazara, edo disko berdina egiten baduzu, formula errepikatzen, musika hiltzen ari zara. Ez duzu ezer berria esaten, eta musikak ez bazaitu hunkitzen... Beraz, gure musika propioa egiten jarraituko dugu.

Kontzertu mordoxka duzue; etorkizunerako planik?

Oraingoan ahal den gehien jo eta Alemania eta Frantziari bira emango diogu bosgarren aldiz. Hori da orain buruan daukaguna. Urte bukaeran, gure lehen erreferentzia aterako dugu Simple Social Graces diskoetxean, eta oso gustura gaude horrekin. Izan ere, horrek Ameriketako Estatu Batuetan jotzeko aukera emango digu.

Horretaz aparte, gure zigilua kaleratu nahi dugu datorren urtean. Oraindik ez dugu izenik, baina gure buruan dagoeneko hasi da forma hartzen!



AZKARATE
aroztegia



Arotz lanetan behar duzun guztia



- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak



Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020

www.goiena.net/blogak/azkarate



ROCKA | MAHASTER RIVER ETA SYNCHRONICITY

Gustura aritu ziren bi hirukoteak eta ikusleak The Police taldearen omenezko kontzertuan

The Police taldeari tributu egin zioten zapatu gauean Mahaster River eta Synchronicity taldeek, 3.60 aretoan

Imanol Soriano

Mahaster River hirukote bergararra igo zen oholtzara lehenik. Ekainean Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin *Irtenbiderik gabeko autobideak* diskoa kaleratu zuten eta zapatu gauean diskoa aurkeztu zuten 3.60 aretoan bildu zen jendearen aurrean.

Kontzertu laburra egin zuten bergarrek, berrogei minutu pasatxo aritu ziren taula gainean, baina ondo baino hobeto aprobetxatu zuten denbora.

SINKRONIZAZIO GARAIA

Bartzelonako hirukoteak jo zuten jarraian. Taldeari izena ematen dion *Synchronicity* albumaren

izen bereko kantuarekin hasi zuten emanaldia. *Next to You* abestiarekin hasi zen jendea animatzen. Behin ikusleak berotuta, txantxa moduan-edo azkeneko abestia *Roxanne*-joko zutela esan zieten aretoan bildutakoiei. Jakina, ez zen azken kantua izan, eszenatokian denbora laburra zeramatzen-eta.

Kontzertuak aurrera egin ahala kataluniarrak eta ikusleak gustura zebiltzala nabaria zen.

Agur gisa *So lonely* jo zuten, baina nahiko modu berezian, kantuaren tartean beste zenbait talderen bertsiok egin zituzten-eta: *No Woman No Cry*, *Dolores se llamaba Lola*, *Summer of 69...*

Mahaster River taldeak ekainean kaleratutako diskoa aurkeztu zuten

Iñaki Uriarte arrasatearrak ez zuen zorterik izan grafiti lehiaketan

Autoa ez dugula egoki erabiltzen salatu zuen Tolosan marraztutako 'Autoaren ametsa' grafitian, zapatuan

M.B.

Euskal herriko III. Grafiti Lehiaketa jokatu zen zapatuan Tolosan. Hamar grafitik hartu zuten parte lehian -33k eman zuten izena, baina epaimahaia hamarrok aukeratu zituen lehiaketa egunerako-. Ibarreko ordezkariak ere izan genuen hamarrekotako talde horren barruan: Iñaki Uriarte, hain justu ere. *Autoaren ametsa* grafitiarekin hartu zuen parte arrasatearrak, baina ez zuen lau saridunen artean egotarik izan.

Lehiaketaren hiru edizioetan hartu du parte Uriartek -aurreko bietan *Esan* lagunarekin batera-, eta garbi dauka grafitia eboluzionatzen ari dela, "eta hainbatek hala ikusi ez arren benetako artea" dela.

Autoaren ametsa lanarekin "ohiko pieza eta aurpegiak margotzeari laga nahi izan diot", esan zigun Uriartek; "Aldatu egin nahi izan dut, eta, horrekin batera, autoari ematen diogun erabilera okerra salatu".

EURIARI AURRE EGIN BEHAR

Euriak asko aldrebestu zuen Uriarteren lana: "Horma baten margotzen hasi eta lekuz aldatu behar izan nuen euriarengatik", azaldu zigun. Euripean egin behar izan zuen lan eta hori eragozpen izan zen lana lasai eta taxuz egiteko: "Euripean egon beharrean tunel pare bat egokitu

izan balituzte, hobeto ibili izango ginatekeen. Aterkiarekin jardun behar izan nuen", gehitu zuen. Parte-hartzaileen mailari dagokionez, "aurkeztutako sei bat lan maila handikoak ziren. Euririk egin izan ez balu ere ez dut uste irabakiko nukkeenik", aitortu zuen.

Teknikaren erabilpen egokienaren saria Ander Garrosa eta Javier Romero gasteiztarrek eroan zuten, *Jarri hegoak zure irudimenari* lanarengatik. Koloreen erabilpen egokienarena Garikoitz Arregi berriztarrendako izan zen, *Musika begiratu, entzun grafitia* lanarengatik. Grafiti original eta freskoena Gasteizko Josu Izarra eta Sebasek margotutako *Izenik gabea* izan zen eta Kalitatea saria, berriz, Graffmaniatiks taldeak jaso zuen.

"Hainbatek hala ez ikusi arren, grafitia benetako artea da"

"Horma baten margotzen hasi eta lekuz aldatu behar izan nuen euriarengatik"

AGERIKO PINTURA LEHIAKETA | SARI GEHIENAK BILBO ALDERA

33. ageriko pintura lehiaketa antolatuta zuten San Martin jaietarako Bergaran. Beartek antolatutako lehiaketara 30 lagun aurkeztu ziren: 25 nagusi eta 5 gazte (23 urtetik beherakoak). Atzo goizean partaide bakoitzak herriko txoko bat aukeratu eta han egin zuen bere koadroa. Ondoren, Etxagi tabernan bazkaldu zuten parte-hartzaileek. Arratsaldean, 18:30ean izan zen sari banaketa, Bergarako kultura etxean. Han, artistek egindako lanak zeuden eta ikusgai egongo dira hilaren 30era arte. Nagusien mailan, Leioako Jose Reyes Ramosek eraman zuen lehenengo saria. Bigarrena Carlos Baudilio bilbotarrak eta hirugarrena, Raimundo Argosek. Azken hori ere bilbotarra. Bergarar onenaren saria Juan Gonzalezek irabazi zuen eta Bergarakoen sari berezia, Unai Azkaratek. Azkenik, gazteen mailan, Elena Castrillejo, Cristina Martin eta Sara Ramos izan ziren irabazleak, hurrenez hurren. Bearteko kideek azpimarratu zuten 23 urte azpikoetan bergararik aurkeztu ez dela. Parranda nahiago, antza... | Goreti Elortza



TRIKITIA | 'HIRI' LAN BERRIA AURKEZTU ZUEN

Junkera erritmo lasaiagoarekin baina proposamen osatuagoarekin itzuli zen

Proiekzioekin lagunduta, munduko hirietatik bidaia izan zen trikitilariak zapatuan Arrasaten aurkeztutakoa

Non. Amaia antzokia.
Antolatzailea. Arrasateko Udaleko Kultura Saila.
Zenbat jende. 150 bat lagun.

Jon Berezibar

Tonu aldaketa nabaria dakar Kepa Junkerak ikuskizun berrian. Lasaiago, hausnarkorrago, baina, era berean, soinu aberatsagoarekin *Hiri* lan berria aurkeztu zuen zapatuan Arrasateko Amaia antzokian.

Soinu berrian atentzioa ematen duen lehena pianoaren presentzia handia da, ukitu askoz ere malenkoniatsuagoa emanda. Aipamen berezia merezi du, gainera, perkusio-jotzaileak, lan bikaina egin zuen-eta. Munduko makina bat hiriatatik bidaia proposatzen du Errekaldeko trikitilariak disko berriarekin. Proiekzioez lagunduta eta ohiko bandarekin lagunduta, aurrekoetan baino pausatuago dator oraingoan Junkera. *Marem*-ekin dantzazari bagintuen, oraingo melodiako paisaia horietan amets egiteko gonbit modukoa dakar, eta giro horixe bera sortu zuen



Lasaiagoa baina beti bezain gozagarri izan zen zapatuko kontzertua.

JOSETXO ARANTZABAL

hasieran Amaia antzokian Arrasaten; giro benetan berezia.

LUXUZKO GONBIDATUAK

Bandako lagunez gain, zapatuan Ines Osinaga musikaria ere izan zen oholtzara Junkerarekin abestu eta panderoa jotzera, eta, horrez gainera, Goikobaluko abesbatzako hurrek ere jaso

zuten gonbita, gurasoak adurra zeriela utzita. Hori izan zen disko berriko abestiei dagokienez, zeren eta abesti zaharrak ez baititu alde batera utzi bidaia berri honetan. Hala, ikusleek benetan eskertu zuten material zaharri egindako gainbegiratuak; horiek eman zioten eskatzen zuen erritmoa ikuskizunari. Txaloka eta dantzan. buruarekin erritmoa ezin jarraituz, benetan gozatu zituzten askok Junkeraren betiko abestiak. Arrasateko disko berriko abestiak jotzen dituen lehen aldia izan zen, estreinaldi osoa, baina sobera gaintu zuten zapatuan konposizio berriei antzokikoan azterketa.

Normandian hasi eta munduan zehar lurretan amaitzen den bidaia

Trikitia ia mundu osotik bidaian atera eta gero, *Hiri* diskoarekin itzuli da Errekaldeko musikaria, bidaietan ezagututako edo inspirazio gai izandako lekuen omenez: Buenos Aires, Tbilisi, Napoli, Kokkola eta Agadir bai, baina baita Ataria eta Busturia ere. Bere estudioan grabatua, horrek eskaintzen duen patxadarekin, munduko urbeetan egindako 15 geldialdiren bitakora-koadernoa da disko berria. Lasaiago, aberatsago eta kolaborazio ugariarekin, ohiko formularekin dator Junkera, orain dela bost urte *Marem* arrakastaz josiaren ostean. Lasai baina pasioz eta bizipozez bete dagoela dio musikariak, espirtu bateratzaile, askotariko eta mestizoarekin. Disko kosmopolita, beraz, trikitiarentzat.

Tonu aldaketa nabaria da, lehengo erritmoak alde batera utzita

Abesti zaharrak ere eskertu zituzten ikusleek, erritmo biziagoa dutelako



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena + KODEA

1,2,3,4...Real!!! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic Iuep!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Aitarek ta semea... | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu... Miamoi! | **MIAMOL**
Independentzia! | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazul (pilotak) | **MILAZU**
Suprinua | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALAPA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txoxtx | **TXOTX**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

DEPOR.IZENA. OSAUNA.IZENA.
ZENBAKIA ZENBAKIA

E ALONSO **KRUTXAGA**
17 **11**

BILBAO.IZENA. REAL.IZENA.
ZENBAKIA ZENBAKIA

ETXEBERRIA **ARANBURU**
11 **11**

ANOETA1 **MENDIZ**
11 **11**

ARCO **SADARI**
11 **11**

IPURUA **EIBARPOOL**
11 **11**


BELAK **ZORIB** **IKURRIB** **POPATIK1** **AIZKORAK** **ADARIAK**
11 **11** **11** **11** **11** **11**

ZORIR **ZORIR4** **KALABERA1** **POPATIK2** **EGUZKLORE3** **ELORAN**
11 **11** **11** **11** **11** **11**

TOPA **TITULUA** **MUSKARIA** **SATANAS** **ARRANAK** **IDIAK**
11 **11** **11** **11** **11** **11**

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Altea ematean doan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistema altea ematean doan dira.
* Euskaratutako deitu: 900 94 02 00 telefonora. / ** Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 809-ra.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

UDA KO ARGAZKIEN ASTELEHE



Argazki guztiak fotoblog honetan:




APARRETAN GUSTURA. Aramaioko Uribarri auzoko San Esteban jaietan egin zuten argazkia, abuztu hasieran. Maialen, Ane eta haien lehengusu Beñat txikia primeran ibili ziren apar artean. /Argazkia: Eider Ballina /Aramaio



MAMUA OTE?. Ez, Ainhoaren mutil-laguna da. Haron egin zuten argazkia. Bero handia egiten zuen denda barruan eta Ainhoaren lagunak kanpora ateratzea erabaki zuen. /Argazkia: Ainhoa Carrasco /Aretxabaleta



YANGSHUO HERRIXKA, TXINAN. Inguruan ikusi eta berehala hurbiltzeko tresna eta animaliak erakustera.



URIK LAGAKO OTE ZUEN? Venezuelan izan dira abuztuan. Askotarikoak ikusi dituzte, Salto del Angel delako ur-jauzia, besteak beste. Eta egarriak egon direla ematen du. /Argazkia: Esther Altube /Oñati



TITIA HARTZEN. Bhadgaonen, Nepalen egin zuten argazki hori. Ama bi umeri aldi berean titia ematen ageri da. Berezik emen zion atentzioa egoera horrek argazkilariari. /Argazkia: Lierni Balerdi /Arrasate



KALEKUMEA BAS Deba eta Itziar herriko jabea agertzen diren ibili eta gero. /Argazkia: ...



SANTIAGOREN HANDITASUNA. Obradoiroko plazan egin zuten argazkia. Santiagoren handitasuna ez da galtzen, kristal txiki baten islatuta ikusten badugu ere. /Argazkia: Gorka Galdos /Arrasate



GREDOS. Gredosen egin du argazkia oñatiar horrek, aurtengo udan. Irudikoa Almanzor mendia tontorra da (2.596 m) eta alboan duena, argazkilariaren motxila. /Argazkia: Mikel Otero /Oñati



MADEIRA TXIKIA DA lia egin zioten. Bidean bertatik jaitsi eta kendu egiten dira.

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko

- bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
- Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
- Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
- Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD

- batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENKO GOIENKARIAN.

- Urriaren 2ko ASTELEHENKO GOIENKARIAN aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENKO GOIENKARIAREN artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.


NEKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA




www.goiena.net/blogak/argazkiak



ATZERRITARRAK arroz landaketen ziren hango langileak lanera- /Argazkia: Irati Gorostiza /Aretxabaleta



NEGUAN ERE HONDARTZAN. Uruguako Cabo Polonio deituriko hondartza galdu baten egindute argazkia, aurtengo abuztuan. Txoko galdua eta negua izan arren, zezenak aurkitu zituzten hondartzan! /Argazkia: Julen Mendizabal /Arrasate



TRONPAN EROSOAGO? Thailandian izan zirenean elefanteak hezteko leku horretara joan ziren. Antza atzerritarrak erabiltzen dituzte elefanteei irakasteko. /Argazkia: Txaro Gomez /Arrasate



ERRIAN. Elorrixa auzoan ateratako argazkia da, errien artean. Argazkilariaren semea eta baserrilira. Idi parek ere horrela aurkitu zuten, lanean /Argazkia: Iñigo Arriaran /Arrasate



ESKUOIHALPEAN. Sahagungo (Leon) igerilekuan ateratako argazkia da goikoa. Arturo txikia agertzen da eguzki izprietatik eta paparazietatik gordetzen. Goiz ikasi ditu halakoak... /Argazkia: Peio Altube /Arrasate



GIZAKIAREN TXIKITASUNA. Itsasoaren handitasunaren aurrera, zer da gizakia? Ez ei gara ezer, baina naturarekin bat eginez gero... /Argazkia: Iker Iglesias /Aretxabaleta



HAIN DA TXIKIA, egun bakarrean uharte osoari itzuzte zehar hori aurkitu zuten bidea ixten. Autoan behar izan zuten. /Argazkia: Arantazu Zelaia /Oñati



SIKATZEN JARRITA? Beñatek arrebarekin eta aitarekin egin zuen Santiago bidea. Egun haietako batean, Lizarran zirela egin zuen argazkia. Hurrengo egunerako arropa sikatu egin behar... /Argazkia: Beñat Burji /Aramaio

Sariak

1. saria: Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.



2. saria: Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.
3. saria: bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



GURE AMETSA
JATETXEA

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-maila onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70

www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/dragon-oriental	/garaia	/korozabaleta	/pando
/aebpn	/dukiena	/gertu	/maulanda	/richimaier
/argi-plastik	/ehmff	/gorkagarai	/mayte	/udalatz
/aretxargi	/ego	/gorkataxi	/markiegi	/udalaitz
/arregi	/elejalde	/gurea	/merkeopari	/urdeki
/atai	/ekilore	/guztizeder	/multiopticas	/urbietta
/azkarate	/ezkutuorly	/hamaikataberna	/ogizun	/vitoria
/bastida	/galgorri	/haurtxoa	/ohiak	/ziripot
/briz-aseguruak	/gallastegi	/irudisport	/okipark	
/BZ-sistemas	/ganesha	/joseba	/otzeta	

Eta baita ere:

www.aizue.com

www.lilura.com

www.baster-alde.com

www.ehmff.com.

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria



Luar Na Lubre taldearen kontzertua eta kale antzerkia Oñatiko jaietan

Kulturazaleendako hainbat eskaintza daude Oñatin datozen egunotan; Luar Na Lubrek hilaren 29an joko du Herriko Plazan

Leire Kortabarria

Datozen egunotan, hainbat kultura aukera izango ditugu Oñatiko jai egitarauaren eskutik. Besteak beste, artelan erakusketa bat, bertso saioak, musika eta antzerkia izango dira eskaintza nagusiak.

Musika aldetik, eskaintza indartsu bat dago: Galiziatik, Luar Na Lubre taldea etorriko da, eta kontzertua egingo du hilaren 29an, Herriko Plazan.

Debagoieneko jaietan ez dute lehenengo aldia galiziarrek; izan ere, Bergarako jaietan jo izan dute, harrera politarekin. Galiziako folk musikako doinu goxoak ekarriko dituzte.

BI KALE ANTZERKI

Antzerki emanaldi batzuk ere izango dira. Hilaren 29an ere, Hortzmuga taldeak 12K delako kale antzerki saioa egingo du; erregeen eta bufoien arteko harremana kontatzen du, modu barregarrian; eta urriaren 1ean, Circ Panic taldeak *La caravana pasa* delako muntaia egingo du. Zirkuko elementuak erabiltzen ditu talde horrek.

Bertso saioak ere izango dira, txosna-gunean hilaren 28an, Ekaitz Goikoetxea, Iñaki Gurrutxaga, Julen Zelaieta eta Ministroekin, eta balkoitik balkoirako saioa urriaren 1ean, Amets Arzallus eta Sustrai Colinarekin.

ERMITAK ETA DORRETXEAK

Gaur bertan, astelehena, zabalduko dute Joxe Urtzelai erretiratuaren erakusketa. Oñatirekin lotutako erakusketa da: hain zuzen, herriko ermita eta dorretxeen egurrezko erreplikak, erliebezko koadroak eta maketak dira.

Erakusketa kultura etxean egongo da irailaren 28ra bitartean, 18:30etik 20:30era.

Hitzorduek

UNAI AZKARATE ARTISTA GAZTE BERGARARRAK ERAKUSKETA IPINI DU ESKORIATZAKO INKERNU TABERNAN |

Unai Azkarate artista gazteak (Bergara, 1980) erakusketa zabaldu berri du Eskoriatzako Inkernu tabernan (argazkian, Inkernuko Iñaki Kortazarrekin agertzen da Azkarate). Zortzi lan handik eta beste zortzi txikik osatzen dute erakusketa. Collageak dira, gai jakin baten inguruan egindakoak. Horiek egiteko, Azkarate aurretik egindako lan figuratibo batzuetatik abiatu da, eta horietatik konposizio abstraktuak egin ditu oraingoan. Erakusketa zabalik izango da urri hasierara arte.

Arte Ederretan lizentziaduna eta margolaria bada ere, musikari moduan ere ezagun da Unai Azkarate.



Labur

Eskoriatzako Lukas Prest taldeak banantzea erabaki berri du

Eskoriatzako Lukas Prest punk-rock taldeko kideek banantzea erabaki dute. Taldekideetako batzuk beste zeregin batzuetan dabilta, eta ezin dute taldearekin jarraitu.

Lukas Prest taldea 2003an sortu zen. Oso epe motzean, bi lan kaleratu dituzte, eta punka eta hardcorea aldarrikatu. Norbere ekoizpenaren alde egon dira eta Musikherria asmoan parte hartu dute. Agur moduan, *Shit TV* abestiaren bideoklipa ipini dute euren webgunean (www.mundurat.net/lukasprest).

Denondako moduko txotxongilo emanaldia izango da Aramaion

Txotxongilo emanaldia izango da datorren egubakoitzean, hilaren 22an, Aramaion. Hain zuzen, El Tenderete taldeak *Gazapoen istorioak* izeneko emanaldia egingo du. Herriko Plazan izango da, 18:00etan. Txotxongiloak Araban programak antolatatu du.

El Tenderete taldearen berezitasuna da dena eurek sortzen dutela: istorioa, diseinua, eszenaratzea... Bertan, denondako moduko istorioa kontatzen dute: *Zapo* errikumea lagun barik geratu da, eta *Lata magoa*-k lagunak aurkitzeko formula ematen dio.

Gomendatzen Dizut... lehiaketan parte hartzeko azken egunak

Gomendatzen Dizut... lehiaketan parte hartzeko epea laster bukatuko da: hain zuzen, irailaren 28a da gomendioak entregatzeko azken eguna, bai Bergarako, bai Arrasateko gazte informazio zerbitzuen bulegoetan. Udako oporretan ikusitako edo ezagututako herri, monumentu, ostatu, jatetxe eta bestelakoak gomenda daitezke, ahal dela argazkiarekin.

Sariak inoiz baino hobeak dira: lehen aterpetxe baten egonaldia zen, eta orain, aldiz, 500 euroko bidaia bat egiteko aukera.

ZINEMA |

• *La sombra de la sospecha* filma emango dute Oñatin Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean.

• *Piratas del Caribe 2* filmaren emanaldia Arrasaten Gaur, astelehena, emango dute Amaia antzokian, 20:30ean.

• **Zinema emanaldia egingo dute etzi Elgetan** Etzi, eguaztena, film emanaldia egingo dute Espaloia antzokian, 21:30ean.

MUSIKA |

• **3.60 aretoaren asteburuko eskaintza gertu dago** Hiru talderen kontzertua izango da hilaren 22an, egubakoitzean, 3.60 aretoan: Arkada Social, Aggressive Combat eta Enboskada. 22:30ean izango da. Bestalde, zapatuan, 03:00etan, Mansillarock-en emanaldia izango da.

ANTZERKIA |

• **Star trip antzezlana egingo du Yllana taldeak Elgetan** Ohiko umore garratzarekin eta ironiarekin, Yllana taldeak *Star trip* ikuskizuna egingo du irailaren 22an, egubakoitzean, Espaloia antzokian. Sarrerak salgai daude antzokian bertan. Antzezlana horretako protagonistak astronauta batzuk dira, misio batekin: bizitza adimentsua aurkitzea... eta berau akabatzea.

• **Emetik bertso-kabareta izango da Arrasaten**

Emetik bertso-kabareta egingo dute hilaren 22an, egubakoitzean, Udaletxe plazan, 19:00etan, Emakume Txokoaren ikastaroa inauguratzeko. Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Oihane Perea dira protagonistak.

• **Antzerki talde ez profesional batek emanaldia egingo du** Mutrikuko Goizeko Izarra antzerki talde ez profesionalak emanaldia egingo du hilaren 23an, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan. *Kanpokoekin uso, etxeokokin...* izenburuko komedia antzeztuko dute.

• **Bideak ikuskizuna Aukeran taldearen eskutik** Edu Muruamendiaratz bergararrak zuzendutako Aukeran dantza taldeak *Bideak* lana estreinatuko du Elgetan. Debagoienero estreinaldia izango da. Espaloia antzokian egingo dute emanaldia hilaren 29an, egubakoitzean, 22:30ean. Sarrerak salgai daude antzokian.

IKASTAROAK |

• **Arrasateko margo ikastaroan izenematea** Gaur, astelehena, zabalduko dute Monterrongo ganbarako margo ikastaroan izena emateko epea. 120 euro dira, irailetik ekainera. Argibide gehiagorako edo izena emateko, jo kultura etxera (943 77 01 05 da telefonoa).

ERAKUSKETAK |

• **Arrasateko eskultura egiteko maketen erakusketa** Arrasateko Udalak antolatutako eskultura lehiaketako lanak erakusketan daude egubakoitzera arte Monterronen. Balore kooperatiboak islatuko dituen eskultura aukeratu behar da. Horretarako, publikoak iritzia eman dezake.

• **Kirol argazki lehiaketako lanen erakusketa ipiniko dute** Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak antolatutako kirol argazki lehiaketako lanak erakusketan ipiniko dituzte hilaren 22an, egubakoitzean, Aroztegi aretoan. Urrira bitartean egongo da zabalik.

LEHIAKETAK |

• **Goienaren udako argazki lehiaketa zabalik dago** Udako argazki argitaragabeekin parte har daiteke, koloretan zein zuri-beltzean. Lanak argazkiak@goiena.com helbidera bidali behar dira, edo Goienaren egoitzaren batera. Argibideak: www.goiena.net/blogak/argazkiak.

• **Euskal presoak Euskal Herrira argazki lehiaketa** Lehiaketa hori antolatatu du euskal presoen aldeko Oñatiko taldeak. Aipatutako leloa zabalitzen, udan ateratako argazkiak eskatzen dituzte. Arrano tabernan utzi behar dira irailaren 25a baino lehen.

Zorion agurrak




ARRASATE
Ane Juaristi
Irailaren 9an, 5 urte.
Zorionak eta muxu
handi bat, familiaren
partetik.



ARRASATE
Anjel Isasi
Irailaren 15ean,
16 urte. Zorionak,
Garratzekoan
partetik.



ARRASATE
Oxel Arriaran
Irailaren 16an, 3
urte. Zorionak eta
muxu handi bat,
etxekean partetik!



ARETXABAETA
Nerea Garai
Irailaren 17an, 6
urte. Zorionak!
Andoni, Asier,
Maialen eta familia.



ARRASATE
Aitor Gallego
Urriaren 1ean, urte-
bete. Zorionak eta
muxu handi bat,
familiaren partetik.



BERGARA
Adiran Askasibar
Irailaren 15ean,
urtebete. Zorionak
eta muxu handi
bat. Etxekoak.



BERGARA
Olatz eta Iñaki Arregi
Irailaren 23an eta irailaren 22an, urtebete-
tzea. Zorionak eta urte askotarako, bie.
Ondo pasatu urtebetetze eguna!
Familiakoan partetik.



ARETXABAETA
Aritz Elizondo
Abuztuaren 9an,
urtebete. Zorionak
eta muxu handi bat.
Etxekoak.



ARETXABAETA
Alaitz Mendieta
Irailaren 16an, 6
urte. Zorionak eta
muxu handi bat.
Etxekoak.



ARETXABAETA
Markel Oskoz
Irailaren 21ean,
12 urte. Zorionak
eta urte askotarako!
Eñaut eta etxeokak.




ARETXABAETA
Monika Beltran de H.
Irailaren 22an, 2
urte. Zorionak,
sorgintxo! Alaitz,
Eñaut eta Manex.



ARETXABAETA
Jorge Bengoa
Irailaren 23an.
Zorionak eta urte
askotarako.
Lagunak.



ESKORIATZA
Carmen Gómez
Irailaren 20an,
urtebetetzea.
Zorionak KRMN!
Gutiren partez.



ANTZUOLA
Olatz Unamuno
Irailaren 15ean, 11
urte. Zorionak eta
muxu handi bat,
etxekean partetik.



ELGETA
Javier Larrañaga
Irailaren 18an, urte
bat gehiago, adiski-
de! Ondo pasatu
eguna. Lagunak.



ELGOIBAR
Irati Agirreazaldegi
Irailaren 16an.
Zorionak,
Elgoibarko Lazkao
Txikiri. Lankideak.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak
eta senitartekoak
ASTELEHENKO GOIEN-
KARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argaz-
kia, eta emaitza ezus-
teko ederra!
Zorio

Jaiotakoak



Danel de la Fuente Guerrero
Arrasate • 3,420 kg. Irailaren 12a.
Gurasoak: Eva (Arrasate) eta Ignacio
(Oñati). Argazkian haurra amarekin.



Danel Lanzas
Aretxabaleta • 3,130 kg. Irailaren 13a.
Gurasoak: Izaskun (Aretxabaleta) eta Jose
Javier (Aretxabaleta). Umea kuman.



Haimar Loiti Artza
Oñati • 3,480 kg. Irailaren 13a. Gurasoak:
Eli (Oñati) eta Iker (Oñati).
Argazkian amama Aurorarekin.



Jone Arabaolatza Sanchez
Oñati • 2,850 kg. Irailaren 13a. Gurasoak:
Maribel (Oñati) eta Imanol (Oñati).
Argazkian amama Eugeniarekin.



Eider Paredes Galdos
Arrasate • 2,700 kg. Irailaren 14a.
Gurasoak: Susana (Arrasate) eta Alberto
(Donostia). Argazkian amama Tinarekin.



Jokin Larrañaga Madinabeitia
Aretxabaleta • 3,000 kg. Irailaren 14a.
Gurasoak: Hilda (Aretxabaleta) eta Igor
(Aramaio). Argazkian umea amarekin.



Joel Donoso Bouzas
Soraluze • 3,300 kg. Irailaren 14a.
Gurasoak: Marta (Eskoriatza) eta Juan
Manuel (Arrasate). Haurra kuman.



June Zabaleta Rabanete
Oñati • 3,300 kg. Irailaren 15a. Gurasoak:
Nerea (Oñati) eta Iñaki (Arrasate). Irudian
amama Maria Jesusekin.



Jon Eraña Garcia
Arrasate • 3,380 kg. Hilaren 15a. Gurasoak:
Gaizka (Arrasate) eta Arantza (Arrasate).
Argazkian amama Asunekin.



Nahia Anduaga Urtzelai
Oñati • 3,090 kg. Hilaren 16a. Gurasoak:
Xabier (Oñati) eta Amaia (Oñati).
Argazkian umea kuman.



Oihan Larrañaga Larrañaga
Bergara • 4,440 kg. Hilaren 15a. Gurasoak:
Alatz (Bergara) eta Maitane (Oñati).
Argazkian umea aitarekin.



Ander Mosquera Carmona
Arrasate • 2,790 kg. Hilaren 16a. Gurasoak:
Juan (Pontevedra) eta Ana (Arrasate).
Argazkian: umea amarekin.



Haizea Arenaza Pagaldai
Arrasate • 3,350 kg. Hilaren 16a. Gurasoak:
Iñaki (Bergara) eta Nerea (Arrasate).
Argazkian umea kuman.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo
senitartekoak zoriondu nahi
badituzu, **ARRASATE IRRATIAK**
egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurraren tartea
ARRASATE IRRATIAN
FM107.7
ARRASATE IRRATIA



ESKELAK
ASTELEHENKO GOIENKARIAN

85 euro
943 25 05 01

ESKER ONA

**Xabier
Iriarte Azurmendi**

Arrasaten hil zen 2006ko irailaren 5ean, 70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko irailaren 18an.

URTEURRENA

**Teresa
Balerdi Garbizu**

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 24an,
12:00etan,
Osintxuko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Uda giroan' | 10:00

Alkartasun Eguna, Pello Urizarren eskutik

Atzo, domeka, Alkartasun Eguna ospatu zuen Eusko Alkartasuna alderdiak Arrasaten. Hori dela eta, EAKo Debagoieneko arduraduna, Pello Urizar, elkarrizketatuko dute gaurko irratsaioan, 10:45ean.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Eguerdi saioa' | 12:15

Gobernuz kanpoko erakundeen lana

Debagoieneko hainbat gobernuz kanpoko erakunderen lana ezagutu ahal izateko erreportajea eskainiko dute gaur. Anelkar, Felix Iñurategi-Baltistan Fundazioa eta Oñatiko Misio Taldea erakundeetako ordezkarien iritziak jaso dituzte.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

Emakumeen gaineko urteurrenak

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Josu Jon Imazi elkarrizketa

Herri Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Mugikortasun astea Urola kostan

GOITB programazioa

Astelehena, 18



Debagoieneko albisteak 20:45

Ibarrean gertatutakoa jarraitzeko aukera GOITBko albistegietan. Goiatz Aranak (irudian) eta Julen Iriondok aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Bihurkorrak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Erreportaia.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Klip@k eta MKT.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Bihurkorrak.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Harmailatik.
- 21:15 Gatza eta berakatza.
- 21:30 MKT.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 Erreportaia
- 23:15 Izan ziren.
- 23:30 Eltze beroa
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 19



'Berbaire': gizarte eta politika gaiak 22:15

Miren Elgarresta, Larraitz Ugarte, Jon Iñaki Lasa eta Ainhoa Larrañaga (argazkian) dira gaurko gonbidatuak. Gorka Etxabek aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia.
- 14:15 Klip@k.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Behazulo.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Nonochan.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 16mm.
- 21:15 Gatza eta berakatza.
- 21:30 Izan ziren.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Gaurkoak. Behazulo.
- 23:15 MKT.
- 23:30 Eltze beroa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 20



Zientzia eta teknologia 'Teknopolis' saioan 22:47

Zientziaren eta teknologiaren gaineko gaiendako tartea izango da *Teknopolis*-en: gaur, Aiako Harriko intsektuak, estalduren mundua...

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Bihurkorrak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:45 Gaurkoak
- 15:47 16mm.
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albiste aurrerapena
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustraiak.
- 18:15 Teknopolis
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k
- 19:15 Erreportaia
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Bihurkorrak.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Erreportaia
- 21:15 Gatza eta berakatza.
- 21:30 MKT.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 Elkartasun bideak.
- 23:15 Izan ziren.
- 23:30 Eltze beroa
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 21



Koldo Almandozen 'Belarra' film laburra 22:47

Amagoia Lasagabasterrek eta Josu Txintxurretak zuzendu eta ekoizten duten saioan Almandozen *Belarra* film laburra eskainiko dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik.
- 14:15 Klip@k.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustraiak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Nonochan.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Teknopolis.
- 21:15 Gatza eta berakatza.
- 21:30 MKT.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 16mm.
- 23:15 MKT.
- 23:30 Eltze beroa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 22



Alizia Stürtze 'Ilunpean' saioan 22:15

Oihana Elortza kazetariak aurkezturiko saioan, Alizia Stürtze historialariari egindako elkarrizketa ikusteko aukera izango da gaur.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Bihurkorrak
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albisteak
- 17:00 Berbaire
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Bihurkorrak.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Behazulo.
- 21:15 Gatza eta berakatza.
- 21:30 MKT.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 Sustraiak.
- 23:15 Izan ziren.
- 23:30 Eltze beroa
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Kamera aurrean



"Baserritarrei babesa ematera etorri naiz, eta batez ere baserrian lanean diharduten emakumeei"

JUAN JOSE IBARRETXE |
LEHENDAKARIA
Berriak, 2006-09-14



"Ona da La Sexta bezalako kate nazional batek katalanez, galegoz, erdaraz eta euskaraz eskaintzea futbol partiduak"

JOKIN ETXEBARRIA |
KAZETARIA
Berriak, 2006-09-13

Mondra-UDA

'HARMAILATIK'

Gaur, astelehena, 20:45ean eta 22:15ean

Julen Iriondok aurkeztuta



Irailaren 18a: 099 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, irailak 18, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

24 euro

2006 bukaera harte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.


Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Izaro Larrañaga Mujika (Osintxu)
- Maite Zabaleta Serna (Elgeta)



Irailaren 25eko sariak



**DONOSTIAKO
AQUARIUMa**
bisitatzeko gonbidapen bat.
(saridunari bi emango zaizkio)



Hamarrekoa

GERMAN MURUAMENDIARAZ | KALITATEA FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

"Benetakoa izan behar du pertsonak kalitatezkoa izateko, norbera"

Goreti Elortza

1. Zer behar du produktu batek kalitatezkoa izateko?

Galdera oso sakona da hori. Kalitate hitza oso modan dago orain eta nork bere definizioa eman diola esango nuke. Gu hitza neurgarri izaten saiatzen gara. Neurtzerakoan, jatorriak garrantzi handia du, eta baita produktuaren informazio eta aurkezpenak ere.

2. Eta pertsona batek?

Benetakoa izan behar du pertsonak kalitatezkoa izateko. Gainera, bere nortasuna, balioak, sentimenduak... nortasun horren inguruan mantendu beharko ditu.

3. Noraino heltzen da euskal labela?

Kontsumitzaileenganaino heltzen dela esango nuke. Orduan ikusiko du erosleak bere espektatibak betetzen dituen ala ez. Kateko pertsona garrantzitsuen da kontsumitzailea, nire ustez.

4. Debagoienean, zeri edo zeini emango zenioke kalitate saria?

Gizarteari. Orokorrean jende oso fina da hemengoa, langilea eta konprometitua.

5. Egin duzu Agorrosinera sartzeko kirol txartela?

Ez, ez dut egin. Eta iaz ere ez nuen izan. Kirolzalea naiz, baina ikuslea gehienbat. Eta astia dudanean mendira joaten naiz.

6. Datorren astean dira tenporak. Sinisten duzu?

Egia esan, ez diot jarraipenik egiten. Eguraldiaren ingurukoak beti ondokoari galdezka ibiltzen naiz, ez naiz batere aditua. Beraz, ezin dut esan sinisten dudana ala ez...

7. Urteko zein sasoi duzu gustukoena?

Udaberria da niretzat urteko sasoirik politena. Zorte handia dut Abadiñon: dorretxe aurrean arbola mordoa ditut eta egunetik egunerako prozesua jarraitzen dut.

8. Noiz janzten duzu aurreko amantala?

Elkartean nagoenean bakarrik janzten dut. Noizbehinka egokitzen zait, baina, egia esan, nahiago dut jan sukaldean aritu baino. San Martinetan ere egingo dugu afaria elkarteetan danborrada aurretik, eta egokituko zait zerbait egitea.



JOSETXO ARANTZABAL

German Muruamendiaraz bergararra da eta Kalitatea Fundazioko zuzendaria da gaur egun. Bergaran bizi den arren, Abadiño eta Bergara artean ibiltzen da German, lana dela eta. Izan ere, Abadiñon jarduten du zuzendari lanetan eta Bergarako udaletxean EAJ-EAko zinegotzi da 2003a ezkerero. Langile fina eta mendizalea, udaberria du sasoirik gustukoena.

9. Ile zuriak erakargarriak gertatzen zaizkie batzuei.

Egia da? Bai, entzun izan dut eta egia dela esango nuke. Nik etorri den moduan hartu dut. Arbolekin ere gertatzen da, hosto kolorea aldatzen zaie...

10. Definitu mokoizatea zer den, mesedez.

Harrotasunarekin lotura duen motea da. Soraluze eta Eibar inguruan hala deitzen digute bergarroi. Haize asko omen dugu buruan...



Biharamuna

Iñigo Biain

Bene dicto, ongi esana?

Ratzinger dixit... Edo Benedicto XVI.ak? Ongi esana! Ez, ez dut esan nahi aita santu berriak esandakoarekin ados nagoenik, Benedicto hitzak ongi esana esan nahi duela baizik ... Paradoxikoa, ezta? Izan ere, Inkisizio Unibertsal eta Erromatarraren Kongregazio Sakratuko zuzendaria zenak (Joan Pablo II.a hil zen arte) ahoa zabaldu eta puzkarra atera zuen ezterrari gora joan zen astean, gorroto, intolerantzia eta ezjakintasun usaineko puzkarra. Zer pentsatu behar du honen aurrean nire lagun Mohamed Salem Deedy sahararrak? Arabiarra da bera, baina inoiz ez dit hitzik egin guda sakratuari buruz. Esker oneko hitzak besterik ez du bere besoetan hartu duen gizarte katoliko oñatiarrarentzat, eta ez da gogoratzen Espainia denbora luze batez Al-Andalus izan zenik, kristauek arabiar kutsuko oro (baita juduak ere) ostiko batez bota zituzten arte. Zertarako gogoratu? Zertarako gogoratu gure albisteak, albaitariak, alkandorak edo azokak arabiar jatorrikoak direla? Zertarako gogoratu gure ureztatze sistemak, zenbaketa era edo mendebaleko gizarte "modernoa" oinarri den filosofia eta jakituria greziarrek arabiarrek itzuli eta ekarri zizkigutela? Zertarako gogoratu mundu kristauan izan diren diktadore eta agintari faxista guztiak erlijioa eta Eliza izan dutela lagun min? Eta gurutzadak? Eta inkisizioa? Gogoratu bai, baina puzkarririk gabe, mesedez. Emaiozue bakea elkarri... Amen!

I A A R D C L Z M U S I K A B M O C P O I A A R D C L Z P L I
L R S E C E T R E L I B H E V G O I N A L R S E C E T R E L I
P A A I S O E L K A R Z R E A R O Ñ D E P A A I S O N C N B C
A S R T V P T Q B Ñ T D H E H L M N Q Q A S R T V P T Q B Ñ T
L N D L I B U R U A K E K V E O E T N O L N D T N A T R R Q H
V S H T E L K A R F M S S B Ñ D V L A I S I A L D I A A R F M
V S H Ñ I N L S N E A B A R A O B M I V V S H Ñ I N L S N E A
Z H K U L T U R A A Ñ R I G S S A A R R A S A T E N E P E A Ñ
T E H H Q L F P T A A Q E H L H Z F R C T E H H Q L F P T A A
E T V D L E T E S C Z M Z L A Ñ D A A M E T V D L E T E S C Z
I S Ñ V R F I H R T A N L U H L R Ñ K U I J O K O A K H R T A

Kultura eta aisialdian
gura duzun guztia

Erdikokale, 14 - ARRASATE

ekar
elkar ezagutzen dugulako

www.elkar.com